


# Justizia Errestauratiboa EAEn: paradigma ezezaguna

Nora Egaña Burgaña  
Kriminologia Gradua EHU

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Gradu Amaierako Lana

Tutorea: Idoia Igartua Laraudogoitia

Kurtsoa: 2019-2020

## LABURDURA ETA SIGLAK

BJKO	Botere Judizialeko Kontseilu Orokorra
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EAJ	Eusko Alderdi Jeltzalea
EFRJ	Justizia Errestauratiboaren Foro Europarra
EJ	Eusko Jaurlaritza
GAP	Gipuzkoako Auzitegi Probintziala
GEMME	Bitartekaritza Magistratuen Talde Europarra
JR	Justizia Errestauratiboa
JRZ	Justizia Errestauratibo Zerbitzua
MF	Ministerio Fiskala
PKL	Prozedura Kriminalaren Legea
SAV	Biktimari Laguntzeko Zerbitzua
SMI	Bitartekaritza Judizialeko Zerbitzua
SMP	Zigor Arloko Bitartekaritza Zerbitzua
UE	Europar Batasuna
ZK	Zigor Kodea

## LABURPENA

Lan honetan Justizia Errestauratiboa zer den argitzen da, gizartean paradigmarekiko dagoen ez ezagutza frogatzearekin batera. Zigor Zuzenbidearen aldaera berriak justizia ulertzeko kultura ezberdin bat jarraitzen du, lehen aldiz biktima, delitu egile eta komunitateari emanez garrantzia. Politika eta moralaren oreka bilatuko du, izan ere, injustizia ikuspegi berri batetik ulertzen duelako: delitua gauzatzearen ekintzak pertsonarteko erlazioa suntsitzen du eta justizia hori berreraikitzean oinarritu beharko da.

Justizia Errestauratiboaren praktikak helduen zigor jurisdikziora ardaztuz, EAEn Justizia Errestauratiboaren Zerbitzua eskaintzen da. Arazoaren alderdien parte hartze aktiboa, elkarrizketa eta hirugarren profesionalen baitan, akordioa era baketsuan bilatzea ahalbidetzen du, prozesu eta praktika gizatiarragoak sustatu nahian. Hala ere, Euskadiko gizartean Justizia Errestauratiboa eta zerbitzuarekiko ez jakintasuna dagoela frogatzea bilatuko da ikerketa enpirikoan, pertzepzio okerra eta praktikak gutxiagotzea eragiten duelako.

**Hitz gakoak:** biktima, erreparazioa, elkarrizketa, prozesu errestauratiboa, bitartekaritza.

## RESUMEN

El presente trabajo aclara qué es la Justicia Restaurativa y demuestra el desconocimiento social que existe hacía el paradigma. Esta nueva alternativa del Derecho Penal defiende una cultura diferente de entender la justicia, cediendo protagonismo a la víctima, infractor y comunidad. Busca el equilibrio entre lo político y moral, ya que entiende la injusticia desde una perspectiva diversa: el delito lesiona las relaciones personales y la justicia se ha de basar en reconstruirlos.

Enfocando las prácticas de la Justicia Restaurativa a la jurisdicción penal de adultos, en la CAPV se ofrece un servicio público a tal fin, el Servicio de Justicia Restaurativa. Con la participación activa de las partes del conflicto y la asistencia de terceros profesionales, posibilita el desarrollo de procesos de diálogo pacíficos, impulsando prácticas más humanas de gestión del conflicto. Partiendo de la hipótesis de un posible desconocimiento social del paradigma y, por ende, del servicio, se ha desarrollado un estudio empírico a tal fin que permite intuir, siquiera, su influencia en la percepción social y en su escaso empleo.

**Palabras clave:** víctima, reparación, diálogo, procesos restaurativos, mediación.

## AURKIBIDEA

I. SARRERA.....	6
-1.1)Aztergaia eta gaiaren egoera.....	6
-1.2- Abiapuntuko hipotesia: herritarren ez jakintasun orokorra, protagonista eta hartzaile nagusia den aldetik.....	8
-1.3)Lanaren helburuak.....	10
-1.4) Esparru teorikoa.....	11
-1.5) Metodologia.....	11
-1.6) Interesa.....	12
-1.7) Egitura.....	13
-1.8) Mugak eta argibideak.....	14
II. MARKO TEORIKOA.....	15
-2.1)Zertan datzan eta garapen historikoa.....	15
-2.1.1)Jatorria eta garapena.....	15
-2.1.2)Araudia: Europa, Espainia eta EAEn duen barne eragina.....	23
-2.1.3)Oinarri eta balio teorikoak.....	28
-2.1.4)Justizia Errestauratiboko prozesu edo gailuak.....	29
-2.1.5)Eztabaida doktrinala.....	31
-2.2) Justizia Errestauratiboa EAeko helduen gatazka penalen kudeaketan.....	35
-2.2.1) Eskura dauden baliabide publikoak.....	36
-2.2.2) Indarrean dagoen araudia: JEZren Protokoloa.....	38
-2.2.3) Datu estatistiko esanguratsuenak.....	43

III. ALDEKO DISKURTSO TEORIKOAK vs. ERABILPEN BAXUA ISTILU-GATAZKA KONPONKETETAN .....	50
IV. IKERKETA PROIEKTUA.....	57
-4.1) Helburu orokor eta zehatzak.....	58
-4.2) Hipotesia.....	59
-4.3) Alderdi enpirikoa: teknikaren azalpena eta datuen lorbidea.....	59
-4.4) Inkesta adierazgarriak: datuen analisisa.....	61
V. ONDORIOAK.....	77
VI. ESKU PAPERAK.....	83
VII. BIBLIOGRAFIAK.....	85
VIII. ERANSKINAK.....	90
-A eranskina: Inkesta.....	90
-B eranskina: Laburpen exekutiboa.....	103

-1)Sarrera:

-1.1)Aztergaia eta gaiaren egoera:

Justizia Errestauratiboa Zigor Zuzenbidearen aldaera bat da, justizia ulertzeko kultura ezberdin bat, filosofia praktikoaren aldakortasuna suposatu duena. Deiturarengatik ondorioztatu daiteke justizia honen teoriak politika eta moralaren oreka duela helburu, praktika gizatiarragoak sustatu nahian. Lan honetan bereziki, Zigorraren Justizia Errestauratiboa landuko da. Oinarrian jarraitzen duen justiziaren planteamendu singularra jarraian azalduko marko orokorrari esker ulertu daiteke (MATE, 2013: 13. Or.).

Ezaguna den Justizia tradizional kanonikoa, kaltea eragindako ekintzaren egilean erdiratzen da, injustizia gauzatu duen subjektuan. Zaletasun hau ulertzeko, erlijioaz gain, gaztelania etimologiaren inplizituko eragina garrantzitsua da, berez, *justizia* hitza *verdugo*, hau da, zigorkariaren bertute edo sinonimo bezala bereganatu delako, justizia hitzak ajustizia egikaritzen duenaren zentzua izanik. Nahiz eta semantikoki egun urruntasuna egon, bi esanahien artean badago erkide den zerbait: justiziak errudunekiko esku-hartzearekin du zer ikusia, eta kaltea pairatzen duen subjektu pasiboen arreta oro bigarren lekuan utziko da (RICOEUR, 2001: 257-266 Or.). Paradigma berri honi esker ordea, kaltetuak erdigune bilakatu dira behingoz.

Zigor Zuzenbidean jarraitu izan den filosofia praktikoa, mendebaleko Zigor Zuzenbidearen justizia egikaritzeko oinarri batzuk azaltzen ditu, delituaren krudeltasunaren erantzun gisa. Orain dela hamarkada gutxi arte gaiztotasuna eta justiziaz itauntzean, erantzunak hiru norabide ezberdinetara heltzen ziren: legearen autoritatea, gizartearen segurtasuna edo errudunaren hezkuntza (MATE, 2013: 13-14. Or.).

M. Mauss antropologoaren aburuz, hasieran justizia debeku sakratua urratzen zuenaren santzio gisa egikaritzen zen, baina legearen urraketaren zigorra izaten bukatu du. Bigarren azalpeneko ardatzak, mehatxuzko komunitate batean dauden interes immanenteen inguruko hizketaldi politiko-ekonomikoa adierazten du, eta justizia egikaritzeak arriskutsu dena indargabetzea esan nahiko du, zigor askatasun gabetzaile edo beste hautabideen bitartez komunitatea babesteko. Azkenik, psikopedagogian

oinarritzen zen, zigortuaren gizarteratzea errekuperatu nahi delako epaia eta bertako zigorraren bitartez, berreraikitzea.

Hona gakoa: azalpen ardatzetan ez da biktimaren aipamenik egiten, injustizia jasaten duenarena. Izatez, delitu batek ez gaitu sumintzen Zigor Kodeko artikulua bat ez delako errespetatu, biktimari eragindako minarengatik baizik. Zuzenbideak eta justiziak kaltea jasandako subjektu pasiboak, gizaldietan ikusezin eduki ditu, hori dela eta, paradigma berri honen epizentroa biktimaren irudia izango da. Kultura berreraikitzaile, errestituatibo gisa izendatzen da beraz paradigma, injustizia ikuspegi berri batetik ulertzen duelako: delitua gauzatzearen ekintzak legean eragin ordez, gizartean du ondorioa, pertsonarteko erlazioan bat suntsitzen duelako; eta justizia hori berreraikitzean oinarritu behar da. Beraz, paradigma honetan garrantzia eta arreta biktima, delitugilea eta komunitateak izango dute (MATE, 2013: 14. Or.).

Biktimari eragindako kalteen konponketa sustatuko da bereziki. Denbora eta ahaleginei esker, justiziaren ikuspuntua zigortzetik birgizarteratzera aldatu denez, modelo hau delituaren egile, biktima eta komunitateak duen zentzua ulertzeari ekiten da, bi alderdien interesak eta komunitatearen beharrezkoak kontuan hartuz. Bide ezberdinen baitan delitugile eta biktimak kooperazioaren bitartez kasuko erantzun diseinua adostu beharko dute, haien ikuspuntuak azaleratuz, hirugarren esku-hartzaileak errazturiko espazio batean (SUBIJANA; PORRES, 2013: 42. Or.). Erlazioa erreparatzean datza beraz, eta aldaketa honi esker, biktimaren figura, kaltearen erreparazioa, delituarengatik sortutako gatazkaren dimentsio pertsonalak eta erlazio sozialen bakea, mende askotan lekuz kanpo egondakoak, kontuan hartuko dira (IGARTUA, 2017: 18. Or.).

Ikuspuntu honetatik, injustizia beraz ez da lege edo pertsona bati eragindako kaltea kontsideratuko, gizartean eragiten duen gaitza izango da, pertsonen arteko erlazioa suntsitzen duen eta justiziak berreraiki edo sendatu beharko duena (ETXBARRIA, 2012: 49. Or.).

Gaiaren egoera ulertzeko, Zigor Zuzenbidearekin alderatuz duen berritasuna kontuan hartu behar da. Paradigmaren inspirazio printzipioak edo iradokitzaileak, baita praktikak, XX. mende erdialdean eta XXI. mendeko hasieran Amerikako Estatu Batuetan eta Kanadan garatutako jardute berri eta bitxietan barnebildu dira bereziki. Jarrera kriminala pairatzen zutenen frustrazio eta asegabetasunaren erantzun gisa jaldi zen. Justizia Errestituatiboa, parte hartzekoa, zuzentzailea edo birsortzaile bezalako

kontzeptuak erabiltzen dira biktimen aldeko eta jarrera ez zigortzailea duen justizia hitzez adierazteko. Nire lanean Justizia Errestauratiboa hitza erabiliko dut. Internazionalki apurka jarrera zigortzaileak erantzuteko modu gisa sustatu eta gogoan da, gizartearen, biktimaren eta delitugilearen beharretan oreka lortzea izanik oinarria (IGARTUA, 2017: 20. Or.).

Egun, Euskal Autonomi Erkidegoan aurrerago azalduko den bezala, paradigma honen zerbitzu eta arreta jaso dezakegu, Euskal Gobernuak Justiziarekin duen Kooperazio Zerbitzuen jardute profesionalari esker. Atxilotuen arreta, biktimen atentzioa, bitartekaritza eta bestelako tresna-prestazioak eskaintzen dira, bai eta zigor auzitegietan Justizia Errestauratiboko programen erabilera ere. Hala ere, Espainian ez da beste estatu aurreratuetan haina praktikatzeko paradigmak jasotzen duen teoria zein Justizia Errestauratiboaren zerbitzua. Honen arrazoiak anitzak diren arren, nire lanean komunitateak paradigma honekiko duen ezagutza falta eta pertzepzio okerrak, erabilera gutxiagotzen duela ziurtatu nahiko dut, zigor arloko prozesuetan onartzen den Justizia Errestauratiboaren praktikan bereziki, atxikita doakion paradigmarekiko mesfidantza pertzepzioarekin batera.

-1.2) Abiapuntuko hipotesia: herritarren ezjakintasun orokorra, protagonista eta hartzaile nagusia den aldetik.

Monografia EAEn XXI. mendeko bigarren hamarkada hasieran Justizia Errestauratiboarekiko dagoen ez jakintasunean oinarrituko da, honek pertzepzio eta teoriaren ulermenean, iritzian eta duen praktikan duen loturarekin batera. Elementu hauek aztertzen saiatuko naiz, paradigma honen erabiltzaileak eta sistemaren protagonistak Zigor Zuzenbidearen betiko epaia ez den zerbitzu eta irtenbide ezberdin baten ezagutza eta erabilpen eskubidea betetzen ez dela frogatu nahi dudalako; eta ahal den neurrian, hori aldatzen saiatzeko. Sistema gizatiarrago bat lortu daiteke Justizia egikaritze mota honen balio eta bideen baitan, baino ez bada baliabidearen informazio eta berririk lantzen ez eta sustatzen, uste, praktikak zein helburuek ez dute gora egingo.

Egia da denborak, ezagutza eta lotuta doakion jakiturian eragin zuzena duela, normala da beraz mendeetan zehar erabili eta inposatua izan den Sistema Zigortzaileaz



gizarteko atal nabarmenetan jakin eta erabiltzea. Hala ere, egungo ideologia eta teknologia garapenek, hezkuntzan, Estatuko plan eta sare sozialek, gatazkak konpontzeko sistema berri hau ezagutaraztea eta sustatzea lortu dezakete, hedatu eta gure praktikaren baitan ohituran sartzea. Baina paradoxikoa dirudien arren, ezagutzaren gizartean bizi gara ez-ezagutzaz inguraturik, eta pertsonalki inguru zein gizartean landuko dudan gaiarekiko ez jakintasuna, pertzepzio okerra eta aurreiritzia susmatu dut.

Gauzak honela, berria eta oraindik “ahula” den justizia aldaketa lanketaren bitartez barneratu behar da, gizarteko prozesuetan eragina izatea lortu arte. Barneratzeak ez ezagun eta hasieran zalantzarik zaigun ideia eta ekintza, gizartearen pentsatzeko eta sentitzeko era barnean sartzea esan nahi du <sup>1</sup>. Behin ezagutza barneratuta, jakituria eta uste onekoa izatera pasako da ezagutza hori sendo ezarri, asimilatu eta hedatzerakoan (GONZÁLEZ, 2011: 6. Or.).

Gobernu araudi eta planen bitartez, diagnosia, ekintza, estrategia eta helburuak ongi determinatuta, planteamendu berri eta aplikagarri bat herrialdeko eremuetara iritsi eta ezarri daiteke. Dimentsio sozial, ekonomiko eta instituzionaletan Justizia Errestauratiboaren praktikak zein bere alde onak transmititu beharko lirateke, bai eta hezkuntza bezalako instituzio ahaldunean gatazka eta ondorioz batzuetan ematen den kaltea elkarrizketa bitartez konpontzen saiatu daitekeela irakatsiz, ez zigorraren baitan.

Dena den, bide bat baino gehiagoren bitartez sustatu behar da justizia honen ezagutza eta erabilera, ziurtasun eta interesa medio egonik. Izan ere, EAEn bada Zigor Jurisdikzioaren aldetik Euskadiko instituzioen arteko Justizia Errestauratibo Zerbitzuaren Protokoloa, baina sistema ororen protagonistak diren herritarrei ez bazaie dauden aukerabide berria heltzen, plan, programa, akordio, zerbitzu eta protokolo oro alferrikakoak dira. Oihartzun gehiago behar du hain indartsua den bake irtenbide honek, herritarrek ohikotasunez zein behar eta ahal denetan behintzat praktika honi ekitea lortzeko.

---

<sup>1</sup> Real Academia Española. (2014) *Diccionario de la lengua española* (23. ° ed.) Kontsulta: <http://www.rae.es/rae.html>

### -1.3) Lanaren helburuak:

Gradu Amaierako Lanaren gai gisa Justizia Errestauratiboa landu nahi izan dut, Kriminologia graduan gaiaren teoria eta praktika gutxi jaso dudalaren sentsazioa bai dut. Biktimologian azalpenen orokor bat jaso genuen arren, ez zaigu bestelako aipu edo momenturik eskaini ezta beharrezko irakasgai gisa ezarri. Paradigmaz informatu ostean, jarraitu eta defendatu nahi den bake prozesua oso erakargarria egin zitzaidan, sistema gizatiarragoa eraikitzearen aldekoa bai naiz.

Aldi berean, behin gaia esleitu zitzaidanean, nire ingurukoei Justizia Errestauratibo hitzak aipatzerakoan, inork ezagutzen ez zuela ohartu nintzen. Ingurua eta adina aldatzerakoan, berdina gertatzen zen, beraz orokorrean gaiarekiko ez jakintasuna dagoela ondorioztatu nuen, frogatu nahi izaterekin batera.

Nahiz eta organo judizialek prozesu errestauratiboen artikulazioa erabaki dezaketen, eskubide eta bide honen informazioa normalean laguntza ematen duen abokatu edo inguruko pertsonen aurretiko esperientziatik iristen da ezagutzera. Beraz, protagonistak diren herritarrek gai honekiko duten desinformazio eta ikuspuntu maila aldatu nahiko dut, salatzen dudana zabalkuntza falta sustatuz. Horretarako, lan bukaeran esku paper bat sortuko dut, Zigor Jurisdikzioaren beste hautabide, osagarria edo aldiberekoa den paradigma zertan datzan, zigor alorrean eskaintzen den zerbitzua eta hauen betekizunak laburki azalduz, abantailekin batera. Jurisdikzio familiar-zibila baztertuko dut, nire ikerketa esparrua zehatzago egin nahian.

Atzeko lan hau nire helburua betetzeko izango da baliogarri. Justizia Errestauratiboaren prozesuak boluntarioak direla errespetatuz, herritarrei eta operadore juridikoei gaiarekiko duten informazioa ziurtatzen saiatuko naiz, hipotesia frogatu eta bultzada lortzeko helburuarekin. Gure herrian gaiarekiko zurrumurrua handiagoa den arren eta erabilera martxan den arren, batzuk defendatzen duen filosofia praktikoa eta horien artean elkarrizketaren erabilera, ordainketarekin alderatuz ez dute arazoa konpontzeko nahikoa ikusten, edo aurreiritzi eta mesfidantzaren kutsuarekin hitz egiten dute gaiaz.

#### -1.4) Esparru teorikoa:

Justizia Errestauratiboa diziplina artekoa den Kriminologia eta Zigor Zuzenbidearen ezagutza edo analisi eremuan kokatzen da. Kriminologia aldetik, ikerketa biktimologikora dago lotuta, diziplinak biktima eta honen ezaugarri biologiko, psikologiko, sozial eta moralak aztertzen dituelako, bai eta delitugilearekin duen lotura; gainera, gizartean fenomeno orok duen inplikazioarekin doa atxikita, kasuan kaltea dela eta apurtzen den erlazioarengatik. Zuzenbidearen esparruak delitutzat tipifikaturiko ekintzak zein modu edo tresna bidez zuzenduko diren abordatzen du (IGARTUA, 2017:18. Or).

Zentzuaren justizia hau, era berean, aipaturiko Biktimologia eta Soziologia esparruekin doa lotuta. Lehenengoak zigor jurisdikzioa gizatiarra izatea bilatzen duelako, biktimaren erreparazioa ardatz nagusia izanik, bakea, bitartekaritza, berritzea eta heziketa nahiko ditu, epaitu eta zigortu ordez. Eta azaldu bezala, ideia hau paradigmaren erdigunea da (RODRÍGUEZ, 2016).

Soziologiaren adarretik, delitua ematerakoan gizabanako eta taldearen eskubideak urratzen dira, eta erreparazioa biktima, delitugile zein taldearen kolaborazio eta barneratzearen bitartez lortuko da bakarrik. Bakoitzaren paperak dakarren beharrak eta jarduteko erak komunitate osatu bat lortzea eragingo du. Prozesu mota honetan ondorioz gizarteko kiden parte hartzea galdatuko da, taldeak laguntza ahalmena bai du. Soziologia beraz justizia honen esentzietako bat da, pedagogiaren berreziketa eta psikologiarekin batera (RODRÍGUEZ, 2016). Ezin da ahaztu, soziologian gizakion bizi baldintzak ulertu eta hobetzea dela bere esfortzu zein nahi handienetakoa, gizabanako, multzo eta komunitate orekena.

#### -1.5) Metodologia:

Lanaren metodologia aldetik, zati teorikoan Justizia Errestauratiboaren inguruko tesi, liburu eta aldizkarien erabileraz osatu dut marko teorikoa. Europa, gure estatu eta bereziki EAEn justizia honek duen egoera azaltzeko lege eta bibliografia ezberdinen bitartez joan naiz osatzen informazioa.

Nire hipotesia frogatzeko, alde teorikotik zientifikora pasako naiz, amaierako esku papera osatzea lortzeko helburuarekin. Ikerketa kualitatiboa gauzatu behar izan dut ez-ezagutzak erabilera eskasean duen kausalitatea frogatzeko, honela analisi estatistikoak eratu eta hipotesia onargarria den ziurtatzeko.

Nire emaitzak ahalik eta lagin handienetik lortuko ditut ondoren populaziora zabaldu edo homogeneizatu nahian. Landa lana mugitzen gauzatu nahi nuen, baina Covid-19 pandemiaren alarma egoera dela eta, nire inkestak on-line gauzatu behar izan ditut. Laginaren aldetik, adin nagusitik gorako muga ipini dut, helduen zigor jurisdikzioan zentratuko naizelako eta multzo ezberdinetara heltzen saiatu naiz: hala nola nire inguruko Kriminologia edo Zuzenbide ikasleei zein beste graduetakoei, profesio ezberdinetan diharduten helduei eta ahal den neurrian Zigor Jurisdikzioko operadore edo prozesuan zerikusia dutenei.

Era berean, epaitegietara gai ezberdinetako auzietara joateko intentzioa nuen, delitugile, magistratu edo prozesuko alderdiei inkesta betetzea eskatzeko, zigor sistemaren erabileran gauzatzen dutenen Justizia Errestauratiboaren ezagutza mailak pertzepzioa aldatzen duela aztertu nahian. Covid-19 egoera dela eta, epaitegiak ez dira martxan egon, eta azkenean Gipuzkoako Auzitegi Probintzialeko magistratu gutxi batzuek inkesta paperean osatzeko aukerarik izan dut bakarrik.

Nire ondorio estrapolatuak datuak estatistiketan alderatuz aterako ditut, Justizia Errestauratiboaren inguruko iritzi, pertzepzio, uste oker eta bereziki ezagutza populaziora orokortzea ahalbidetuko dit, nire hipotesia zehaztearekin batera.

#### -1.6) Interesa:

Nire lana pertsonalki baliagarri zait helburutzat sistema zigortzailea baino eredu gizatiarragoa ezagutu araztea dudalako, erronka polita da nire nahiekin baliokide bai da. Baina bereziki gizarterako izango da interesgarria, paradigma berri baten praktikari oihartzun eta bultzada ematen saiatuko naizelako nire ikerketaren ondorio eta amaierako esku paperaren bitartez. Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herrizaingo Sailei esku papera bidaltzen saiatuko naiz, epaitegietan eta ertzain etxeetan zabaltzeko proposamena balora

dezaten. Asmoa beraz, bake prozesuak herritarren egunerokotasunean presente ez daudela frogatu eta egoera zerbait aldatzea izango da.

Egungo estatu neoliberallean, hain tradizionala den Zigor Jurisdikzioak bere funtzioak era kaskar edo mugatuan betetzen ditu, delitu egintzaren errudunari egoztearen aldetik eta biktimari kalteen erreparazioan laguntzearen aldetik. Justizia Errestauratiboak, zigor jurisdikzioaren baliokideak, pertsona eta gizartean aldaketa eta baldintzak hobetzea bilatuko du, guztion alde (OLALDE, 2013: 278. Or.).

Lana euskaraz izateak ere, aurrera pausu bat suposatzen du EAEn behintzat, izan ere, albisteren bat at utziz, Justizia Errestauratiboaren dokumentu eta doktrinak ez daudelako ia eskuragarri gaztelera edo ingelesa ez den hizkuntzan. Lengoiaren aldetik beraz, euskaldunontzat interesgarria izan daiteke paradigmen inguruan lanean txertatutako informazioa beraien ama hizkuntzan egotea.

### -1.7) Egitura:

Lanaren lehen zatia paradigma errestiturazioaren hurbilketa teoriko bat egitera bideratu dut: jatorria eta egungo egoera azalduz, nire hipotesia den herritarren gaiarekiko ez jakintasuna planteatu, zein esparru teoriko barnebiltzen dituen, jarraituko dudana metodologia eta lanak izan ditzaken ekarpenak azalduz, mugekin batera.

Jarraian, hurbilketa teoriko sakonago bat egin dut: paradigmen jatorria zehaztuz, oinarri teoriko eta jarraitzen dituen balio, tresnak, araudia zein zerbitzuak eta eztabaida doktrinala azalduz. Bereziki EAEn paradigmak XXI. mendeko bigarren hamarkadan duen egoera irudikatzen zentratuko naiz, zehazkiago helduen zigor arloan. Era berean, erabilera tasak alderatu ditut nire hipotesia kementzeko.

Hurbilketa honen ostean, lan enpirikoaren atala doa, ikerketa proiektua: helburu orokor eta zehatzak aurkeztu, hipotesi nagusia, erabiliko dudana teknikaren azalpen zein kronograma eta inkesta errestiturazioen datu eta hauen azterketa eginez.

Azkenik, egindako ikerketak emandako datuak aztertzeari eta ondorioak ateratzeari eskainiko diot azken atala. Honi eta aurreko lan guztiari esker, ondorioztaturiko informazio faltari esker, esku paper erabilgarri bat txertatuko dut,

polizia etxea eta justizia saila diren instituzioetan bertara doazenek nahi izanez gero paradigma eta honen zerbitzuaz ezaguera izan dezaten. Amaieran bibliografiak doaz txertatuak erreferentzia testuak izendatu eta informazio iturri originaletara jo nahi duenarentzat.

### -1.8) Mugak eta argibideak:

Nire emaitzak ahalik eta lagin handienetik lortu nahi izan ditut ondoren populaziora zabaldu edo homogeneousatu nahian. Landa lana mugitzen gauzatu nahi nuen, baina Covid-19 pandemiaren alarma egoera eta luzapena dela eta, nire inkestak on-line gauzatu behar izan ditut. Laginaren aldetik, adin nagusitik gorako muga ipini dut eta zorizka multzo ezberdinetara heltzen saiatuko naiz: hala nola nire inguruko ikasleei zein beste graduetakoei, profesio ezberdinetan dihardutenei eta egoerak onartzen duen neurrian Zigor Jurisdikzioko operadore edo prozesuan zerikusia dutenei.

Era berean, epaitegietara gai ezberdinetako auzietara joateko intentzioa nuen, delitugile, abokatu, testigu edo prozesuko alderdiei inkesta betetzea eskatzeko, zigor sistemaren erabileran daudenen Justizia Errestauratiboaren ezagutza maila aztertu nahian. Hala ere, epaitegiak ez dira martxan egon, eta ekainaren hasieran inkesta hauek pertsonan osatzeko saiakera egin nuen Gipuzkoako Auzitegi Probintzian eta Atotxako Instrukzioko Epaitegian. Azkenean Probintzialeko magistratu gutxi batzuetara mugatu behar izan da asmoa, eskuz bete zituzten eta haietako batekin elkarriketa labur baina eraginkorra izatea lortu nuen.

## -2)Marko Teorikoa:

### -2.1)Zertan datzan eta garapen historikoa:

#### -2.1.1) Jatorria eta garapena:

Jakingarri da subjektu pasiboak hain luzez ikusezin izatean kooperatu duten faktoreak indarkeriaren prestigioa, autoritatearen aurrerapena edo gorputzaren ospe galtzea izan direla, gorputzak zigortzen bai ziren arimak askatzeko. Aipaturikoak, gizarte eta ideologiak aldatzen joan behar izan dira egun biktimen inguruan hitz egin ahal izateko (MATE, 2013: 14. Or).

Azaldu bezala, ezagun bezain zaharra den Zigor Jurisdikzioa eta honen sistema teknikoa gizatartu eta ezitzezko asmoz agertu behar izan zen paradigma (OLADE, 2010: 762). Justizia egikaritzeko bide bat izango da, filosofia praktika berri batekin, justiziaren aparteko ikuspuntu berria suposatuko duena eta 70. hamarkadatik aurrera, sistema tradizionalaren aldizkatze, osagarri edo aldibereko bide berri batean bilakatu zen. (MATE, 2013:13-19).

Sistema judizialaren krisialdiak, joera zigortzailea arrazoi nagusietako bat izanik, ondorioak eragin zituen, horien artean justizia egikaritzeko aldizkako modelo berriak sortzea. Mugimendu eta aldaketa hasi berriak *Comprehensive Law* gisa izendatu ziren eta horien artean Justizia Errestauratiboa kokatu zen, Terapeutiko eta Prozedurazkoarekin batera, nahiz eta jarraitzen dituzten helburuak ezin dira haien artean nahasi, ezberdinak direlako (TAMARIT, 2012: 17. Or; PEREDA, 2012: 138-142.Or.).

Delituaren ondoriozko zigor juridikoetan, ROXINen (1976: 32. Or.) ikuspuntua paradigma honen baliokide da, izan ere, zigorra legitimo egiten duen helburu bakarra bake juridikoa berrezartzea izan behar dela aldarrikatzen zuelako. Zigorak helburu eraikitzailea eduki behar du, ez ordainketa. Erantzun penalaren zantzu eraikitzailearen markoan, juristak zioen bezala, kaltearen ordainez epaileak errudunari ezarriko diona birgizarteratzera egon behar da bideratua, ardua propioaren lanketa sustatuz. Honen harira, PÉREZ SANZBERROK (1999: 373. Or.) azpimarratzen zuenez, Zuzenbide Penal demokratiko batean faktore errektorea gizartean bizikidetzak baketsua bermatzea izan behar da, eta helburu hau lortzeko erantzunek gizabanakoa gutxien kaltetzea lortu behar dute, garapen pertsonala eta gizartekoa sustatzea bilatzearekin bat.

Era berean, PEREZ-SANZBERROren aburuz, justizia bide honi esker publiko eta pribatu esanahiak hausnartu eta zalantzan jarri daitezke: publikoak legea eta

eskubideen aldeko interes soziala zein babesa bilatzen duelako; eta bigarrenak, pertsonarteko erlazioen berreraikuntzan diharduelako. Justizia Errestauratiboaren postulatuetakoz batzuk bi helburuak elkartu eta lortu nahiko dituzte, publiko-privatu bereizketa beharra zalantzan ipiniz, duten interrelazioagatik.

Sistema tradizionalarekin apurtu nahian, zigorra eta Estatuaren rol zentralizatua zalantzan jarri ziren. Aspirazio bakarra jada ez zelako zigorra ezartzearen egikaritzea gauzatzea, ez eta estatuaren arbitrariotasuna jarraitzea. Zuzenbidea eta justizia erlatiboak direnez, denboraren eraginak sistema zigortzailea kolokan jarri zuen eta honen alternatibak bilatzea posible izan zen (ZEHR, 2002: 78. Or.). Beraz, paradigma errestauratiboan pertsona arteko erlazioak kaltetzen dituela garbi ikusiko da, ez estatuaren kalte gisa.

Kontzeptu korapilatsuaren jatorri zehatza Ipar Amerikan izan zen, adingabekoen delitu urraketa arinen erantzun eraberritzaile gisa, 70. hamarkadan mugimendu menonitarekin garaian. Adu eta borondatezkoek, adingabekoen justizia sistema zigortzailearekiko atsekabea zuten momentuan egitateak erantzuteko modu izatedunengatik. Jarraian, eraikuntza teorikoak agertu ziren, Soziologian *ground theory* bezala deitua den esperientzia enpirikoan oinarritutako teoriak, ez hipotesi eraikiak ziurtatzeko; hipotesiak bere esanahi teoriko eta aplikatua ulertuta formulatu eta errebisatzeko bilakuntzak eginez baizik (VARONA, 2013: 62. Or.).

SOLETOk (2013: 77. Or.) azaltzen duenez, Zigor Justizia tradizionalaren faktore batzuen aldaketa beharrak Justizia Errestauratiboaren genesis eragin zuen. Bereziki jarraian azaldukoak izan ziren XX. mendean zehar mendebaldeko Zigor Sistema tradizionalan aldaketak eragiten joan zirenak eta herrialde ezberdinetan paradigma berriaren zabaltzea baimendu dutenak: ordainsari korrontea, ahalduntze sozialaren korrontea, Justizia Administrazioaren eraginkortasun eza eta asebetetzearen bilaketa, birgizarteratze helburua eta biktimaren garrantzia.

a) Ordainsari korrontea:

Paradigmaren hasiera 60. hamarkadan zehar sortu ziren korrontetan eman zen Estatu Batuetan. Alde batetik, sistema judizial tradizionalak biktimen kalteak ekonomikoki erreparatzeko zailtasunak zituen; bestalde, gizartean zigor justizian herritarrek parte hartzeko erreklamazioa hasi zen, tradizionalki Estatu izanik sistemaren ordezkari bakarra. Sistema anglosaxoian biktimaren parte hartzea prozesalki urria den arren, biktimarengan ipintzen den interesa praktikan nabaria da. Estatu



Batuetako sisteman, helburu zigortzailearen baitan biktimarenganako interesa asko jaitsi zen XIX. mende erdialdetik, XX. mendeko 70. hamarkadan berreskuratu zen arte, lehengoratze kontzeptuari esker (TOBOLOWSKY, 2010: 153 or).

Biktimarekiko interesa berreskuratzeak *President's Task Force Final Report* deituriko lehendakaritza txosten adierazgarria sortzea eragin zuen 1982. urtean. Txostena baino lehenago, estatu gutxitan arautzen zen epaiaren zigorraren barruan biktimari lehengoratzearen beharra, kaltearengatiko itzultzea. Txostena eta ekimenari esker, aldaketa arauemaileak eragin eta sustatzea lortu zen araudi federal eta estatukoan, non biktimaren eskubideak jaso ziren.

b) Ahalduntze sozialaren korronea:

60. hamarkada bitartean, Estatu Batuetan bizikidetzeta eta gizartearen bizimoldea ulertzeko era berriak sortu ziren, ahalduntze soziala errazten amaitu zuten ekimen sustatzaileak. Ondorioz, Justizia Administrazioan hiritarren eskusartzea galdatzen zuen programei ekin zioten. Programa hauen oinarria, arazoaren erabakitasunean gatazkaren alderdiek aktiboki parte hartu behar zutela zen, ondorio negatiboak arintzea ahaleginduz. Kasu batzuetan, lekuko erabakietan parte hartzea eta komunitatearen garapenaren borondatea oinarri izan ziren ere. Ikuspuntu hauek, gatazken bake adierazpena bultzatzeko, tolerantzia eta integrazioa sustatu, dibertsitatearekiko errespetua piztu eta komunitatearen jardute arduratsua sustatzeko bitarteko gisa aintzakotzat hartu ziren.

Honela, komunitateari gatazken ebazpenean parte hartzea eskaintzen zion Justizia Errestauratiboaren bide berriak gauzatu ziren. Estatu anitzetan, komunitatearen parte hartze ideia kontsentsuz onartu da, eta Justizia Errestauratiboaren praktikak justizia sistemaren gaitasunak sendotzeko baliagarritzat hartzen dira, bereziki partaide eta baldintzapen kultural ezberdinak dauden gizartetan, justizia eta honen erreparazioaren ikuspegian eragiten delako, Zeelanda Berrian bezala, non biribilguneek aurreratze garrantzitsua ahalbidetu zuten.

Justizia parte hartzailearen funtsezko erronka beraz, gizarte zibilaren parte hartze eraginkorra ahalbidetzen duen era mobilizatzea zen, biktima eta delitu egilearen eskubide eta interesak babestuak direla bermatzearekin batera.

c) Justizia Administrazioaren eraginkortasun eza:

Estatu askotan, justiziaren sistema formalarekiko atsekabea eta frustrazioak delinkuentzia eta anabasa sozialari erantzuna emateko hautabide berriak galdatu zituen. Arrazoa, gatazkak berdinak ez direla zen, bakoitzak ezaugarri ezberdinak, berezitasunak, arrazoi, alderdi, emozio eta sakonera propioa dutelako. Horregatik, gatazka bat konpondu behar denean faktore hauek aztertu beharko dira erantzuteko modu egokiena zein den erabakitzeko, ez bai dago bide bakarra.

Ezaguna da 1976. urtean gauzatu zen *Pound* hitzaldian <sup>2</sup> Sander irakasleak (SOLETO, 2011) eskaini zuen ideia: gatazka bakoitzari konponbide egokiena ahalbidetu behar zaio ate anitzeko auzitegia, *multidoor courthouse* kontzeptuaren bitartez. Ate bakoitzak ebazpen mota bat adieraziko du, hala nola jurisdikzioa, bitartekaritza, adituen balioztatzea, arbitratzea, etab. Geroztik, erreparazioa bultzatzen zuten ekimenak sortu ziren, konponketa komunitatearen baitan konpontzearen inizatibaren aldekoak ere bai. Komunitateko aktibitateei lotuta, auzoetako justizia zentroen lana nabarmen izan zen, eta da. Zentro hauetan auzokideen, familiarreko, zibil eta penal (arinen) gatazkak prozesatzen dira, gizarteke ekimenetik eratuak eta *community center* bezala ezagutuak. Hala ere, egun duten bitartekaritza aktibitatearen atal handienak auzitegietan du jatorria.

d) Birgizarteratze helburua:

Bitartekaritza eta Justizia Errestauratiboaren programa gehienek arrazoi nagusia, delitu egilearen berreziketa erraztu daitekeela da, bereziki adin txikikoak izaterakoan. Estatu Batuetan eta Britainia Handian (SCHNEIDER, 1986: 553-555. Or.) egindako ikerketa batzuei esker bitartekaritza programan parte hartutako adingabeek berrerortze tasa baxuagoa zutela behatu zen, eta bitartekaritza formulek ondorioz ekartzen duten biktima eta erasotzailearen baterako parte hartzeak emaitza hobetoak dituela (UMBREIT, COATES eta VOS, 2001: 455. Or.).

Dena den, bitartekaritza gain, beste faktore batzuk izan daitezke berrerortzea eta emaitza onuragarrien azalpena argitzen dutenak, izan ere, orokorrean delitu egileak eragindako kaltea emozionalki onartuko duela edo horretarako gaitasuna duela ikustean gauzatzen delako bitartekaritza, beste baldintza batzuetaz gain.

---

<sup>2</sup> Justizia Administrazioarekin herriak duen atsekabearen zergatien konferentzia nazionala, Estatu Batuak.

e) Biktimaren garrantzia:

Zuzenbidearen teoria orokorrak eta ondoren datorren justiziaren egiturak atentzioa arauaren urraketan dute, egoera prozesala at utzita eta biktimengan arreta jarri gabe. Honen aurka jardunez, egun, Zigor Sistema gehienetan biktimak erreparazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea du, eta prozesuan parte hartzea onartzen zaio, baina emozionalki behar duen nabarmenkeria oso urruti gelditzen da. Estatu Batuetan eskubide prozesalak nabarmenak izateaz gain, ekonomikoan ere zer esanik du biktimak. Mendebaldeko sistemetan, biktimak informatua izateko, prozesuan parte hartzeko eta babesteko eskubideak orokortzen doaz.

Gaur egun Justizia Errestauratiboan behar eta programak globalizatu dira, helduen esparruan barne, izan delitu arin edo oso larrientzako. Zigor Kodean konfiguratu zen momentutik biktimizazio ororen dimentsio subjektiboa ezin bai da alde batera utzi (VARONA, 2013: 63. Or).

IGARTUAren (2017: 45. Or.) azter lan baten arabera, Zehr-en 1990. urteko postulatuen argitalpenetik Justizia Errestauratiboa era ezberdinetan definitu da. Prozesu gisa azaldu zen, justiziaren teoria berri bezala; edo prozesuen, balioen eta emaitzen laburdura gisa. Ezberdintasunak at utziz, doktrinaren gehiengoa bat dator paradigma sortu berri honen beharrezko elementu identifikatua kaltearen eragina dela.

Egun arte eman diren definizioetan ez da adostasun batera iritsitako zehaztapenik eman, baina Justizia Errestauratiboaren funtsezko oinarriak eratzen dituzten ezaugarri komunak antzeman dira. VARONA (2012: 334. Or.) hitzetan, honakoak dira:

-Pertsona kaltetu eta delitugilearen legezko eskubide eta itxaropenen integrazioa bilatzen du.

-Justizia Administrazioaren sorkundeak delituaren protagonista eta gizartearen parte hartze aktibo eta elkarrizketatua gerizatu behar dituela defendatuko da.

-Erreparazioaren onbidetzat, zilegi ez den ekintzak eragindako kaltearen erreparazioa izatea bilatu nahi du, ahal den neurrian.

Azken finean, paradigma errestauratiboan delitua pertsonarteko erlazioen urraketa gisa hartzen da, hortaz delituaren balorazioa eta honi eman beharreko

erantzuna, kaltetuak izan diren agente indibidual eta kolektiboen beharreatatik beilatu beharko dute (IGARTUA, 2017: 22. Or.).

Praktika eta programa errestitatibo ezberdinak joan dira garatzen, baina oinarrizko ulermen komunak daude, araudi, kongresu eta gaiaren argitalpenetan islatua, ñabardura eta kontraesanak egoteaz gain. Adostasun eta ulertze komuna “corpus” juridiko internazionalari esker gauzatu da, (VARONA, 2013: 63. Or) indar arautzaile ezberdinekoen baitan. Nazio Batuak, Europar Kontseilua eta Europar Batasuna izan dira funtsezko estandarizazioa sustatu duten instituzio printzipalak, eta horien artean programen eta praktiken ebaluaketan egin da enfasia. Era berean, instituzioen aldetik mesfidantza eta gardentasuna falta den herrialdetan, ikertzaile adituei perspektiba kritikoa galdatu beharko zaie benetan paradigma zer den, dituen onurazko edo kalteko eraginak aztertzeke.

Gauzak honela, Justizia Errestitatiboaren kontzeptu orokorra delitu den jokaerari erantzuteke modua da, komunitatearen, biktimaren eta delitugilearen beharrak orekan egotea lortzeke. Helburutzat biktimizazioa gutxitzea, era parte hartzailean erreparatzen saiatzea, elkarrizketa sustatu, sormenezko erantzun eta bideak erabiltzea eta arlo pertsonal zein sozialean pairaturiko kalteen erreparazioaren bermea izango ditu (IGARTUA, 2017: 22. Or).

Hitz erdika baina era adierazgarrian, VARONAK, (2013: 59-76. Or.) 2012ko irailean Bilbon egin zen Kriminologiako Europako Sozietate Kongresuan <sup>3</sup>, momentu arte eginiko paradigmaten ikerketa ezberdinak aurkeztu ziren eta emaitzak honela laburtu zein azaltzen ditu:

-Justizia Errestitatiboaren aukerak delitu larri eta oso larrietan balio dute.

-Praktika europar hobereenen identifikazio eta zabaltzea eman da adingabe eta helduengan; eta Justizia Errestitatiboaren definizioak aditu gehienek adostasunez gizatasun eta erlazio sozialekin, zein ardura ekologikoa duen kultura aldaketa batekin erlazionatzen dira.

-Administrazio eta herrietako eragile sozialen logika errestitatiboaren hedatzea gertatzen ari da; eta zigor sistemaren funtzionamendu eta indartze ikusmoldea delitu egile zein biktimen erresilientziara fokatu behar da, zigorrera orde.

---

<sup>3</sup> Kongresuko programa eta eginiko parte-hartzeen laburpenak ikusteko:  
<http://www.esc-eurocrim.org/files/Eurocrim2012-%20Book%20of%20Abstracts.pdf>

-Emitza orokor positiboak antzeman ziren programa austriar eta alemaniarrek aztertzerakoan; bitartekaritzaren aukera emakumeen aurkako indarkeria kasu ez oso larrietan baliogarri izan daiteke, desoreka estruktural eta botere ororen estereotipoak hautsiz, bigarren mailako biktimizazioarekin barne.

-Norvegian bezalako herrietan arrisku hautemangarriak daude non aberriko bitartekaritza zerbitzua egoterakoan, presio zein arreta gehiago ezartzen den bitartekaritza gaietan, prozesuen kalitatean ordez. Era berean, zalantzarik da bileretan letratuen parte hartzea igotzeak, bai eta bitartekaritza formatuak malgutzeak, aurpegizko topaketarik egin gabe, duen eraginkortasuna, nahiz eta programak guztiz errestituatiboak izaten jarraitu.

-Sistema estatistiko edo miazte sistematikoak duen garrantzia, ikertzaileak sarbide izan eta pertsona ezberdinen perfilen informazio esanguratsua lortzeko, bitartekaritza bitartez konpontzen diren delitu eratorrienak zeintzuk diren jakiteko, akordio batetara noiz heltzen den eta nola betetzen den jakiteko, Belgika adibide hartuta.

-Nahiz eta gaiarekiko araudi internazional zehatza egon, herrialde batzuetan legegaren promulgazioa falta da, operadore juridiko ezberdinen zuzentzaile ofizialak izateko (epaile, fiskal, letratu, bitartekari, etab.), errekurtsoen falta dago, prozesu errestituatiboa bermatzen duten gailu zehatzen xedapenak barne, eta bitartekari edo bideratzaileen osaketa jarraituaren gabezia nabaritu zen.

-Ikerketa batzuk marko errestituatiboaren erantzukizun penalaren teoriak birformulatzean ardatzu ziren, prozesu penalaren markoan baliagarri izateko: erantzukizuna (*responsability*) eta erantzukizunaren onarpena konpromiso eta kaltearen erreparazioa den emaitzara (*accountability*), praktikan ingurabide zigortzaile gisa ez funtzionatzeko. Eztabaida hau adingabekoen esparruko analisisetan eman zen bereziki.

Ondorioztatu zenez, programa eta praktika errestituatibo gehiengoak justizia penalean txertatzen dira, baina ez praktika alternatibo bezala, osagarri gisa baizik. Zigor sistemak logika aldaketa bat ematea falta da beraz (VARONA, 2013: 64. Or.) Justizia Errestituatiboaren kontzeptu batzuk integratzea lortzeko, nahiz eta konplexua izan.

Era berean, programa errestituatiboekiko mesedegarritasun gehiago edo gutxiago adierazten duten herrialdeen izatea aztertu zen, araudi zehatzak alde batera

utzita. Koska honek, eztabaida sozio-juridiko interesgarriak eratu zituen, eta Justizia Errestauratiboaren Foro Europarrak honi heldu behar izan zion. Entzute handia izan zuen bereziki gaiak biktimen eskubideen Europar Batasuneko Zuzendaritza berriaren lanketan, non Justizia Errestauratibora sarbidea berdintasunez izateko beharraren bermea aldarrikatu nahi izan zen delitua gauzatu den lekua edozein dela ere (VARONA, 2013: 65. Or.).

Paradigma berria pixkanaka Kanada eta Estatu Batuetatik, Ipar Europan hedatzen hasi zen, mugimendu sozial zein juridikoek izandako kemen eta garrantziari esker. Hego Europako herrialdetan erabilera zein eraginkortasuna mugatuagoa izan den arren, Europako ekarpenek Espainia zein hegoaldean garapenari bultzada eman diote. Jarraian Europan Justizia Errestauratiboak izandako hastapen eta erduei ekingo zaie, garapena malgutzen duten faktore zailduekin batera.

Araudiei erreparatu baino lehen, Nazio Batuen *Handbook of restorative Justice* lanaren arabera, Justizia Errestauratiboaren programek delitu egileari ondorengo aukera eta ahalmenak eskaintzen dizkiola aipatzea komeni da (SOLETO, 2013: 80 Or.):

-Kaltearen ardura onartzea eta kalteak biktimari eragindako efektuak ulertzeko gaitasuna.

-Kalteak eragindako emozio eta ahuldurak adieraztea.

-Biktimari, honen familia edo delitugileari gauzatutako kaltea erreparatzeko laguntza jasotzea.

-Jarrera zuzendu, lehengoratu edo erreparatzeko ahalmena.

-Biktimei damutasuna adierazteko ahalmena.

-Biktima eta delitu egilearen erlazioa erreparatu, aproposa den kasuetan.

-Etapak bat ixtea lortu.

Biktimen aldetik, Europar Batasunak azken hamarkadan bereziki haiengan ipini du arreta. Delituen biktimen kalte ordainketaren Liburu Berdea eratu zuen, urgazle izan den 2004ko Zuzendaritza Kontseiluak onarturiko konpentsazio beharraren laguntzarekin. 2012ko jardute eta zehazteari esker, Justizia Errestauratiboak biktimei eskaintzen dizkion abantaila eta aukerak garbiak dira ere Nazio Batuen *Handbook of restorative justice*an (SOLETO, 2013: 83.Or):

-Egoeraren ebazpenean zuzenean parte hartzea eta kaltearen ondorioen ezarpenean parte hartzea ahalbidetzen du.

-Delitua eta errudunarekiko dituen galderek erantzuna izatea.

-Kalteak eragindako zauria adierazi dezake.

-Erreparazioa edo itzultzea lortzen da.

-Barkamena jasoko du.

-Delitu egilearekin zuen erlazioa erreparatu dezake, egokia den kasuetan.

-Etapa ixtera laguntzen du.

### -2.1.2) Araudia: Europa, Espainia eta EAEn duen barne eragina:

Araudiak gako izan dira beraz paradigma mundu mailan ezaguna eta aplikatua izatea lortzeko, hala nola EAEn. Oinarritzko ulertze arrunta araudi internazionalak ahalbidetu dute, eta garapen nabarmenenak Nazio Batuen, Europako Kontseilu eta Europar Batasunen eskutik lortu dira. Aipagarrienak ezaugarri lotesleak barnebiltzen dituzten eta indarrean daudenak dira:

Nazio Batuek, hiru idazki garrantzitsu sortu dituzte. Lehena 1985. urtean eratu zen delituen biktimek justizia egikaritzeko errespetatu behar diren oinarritzko printzipioak aldarrikatuz. 2002 eta 2006 urtetan, zigor gaietan Justizia Errestauratiboa erabiltzearen oinarritzko printzipioak eta paradigmen programen eskuliburua aurkeztu zuten.

Europako Kontseilua araudien garapenaren jardute sendoan ibili da, non prozesu zigortzailetan biktimek duten garrantzia nabarmentzen ahalegindu den. Era berean, parte diren estatuek jurisdikzioetan bitartekaritza eta erreparazioa gehitzearen beharra eta hiritarrei prozesu judizialetan behar zein dagokien protagonismo handiagoaren aldeko diskurtsoa garbia izan du. Zigor Jurisdikzioaren gaietan bitartekaritza erabiltzeko 1999ko gomendioa da aipagarriena, *Recomendación N° R (99) 19a*, non legeria eta praktikan kide diren estatuei bitartekaritza oldartzea gomendatzen da.

Gomendio ezberdin, zuzentarau eta 2011ko apirilaren 7ko Istanbulleko emakumeen aurkako indarkeriaren borroka eta prebentzio hitzarmenaz gain, aipagarriena 2018ko urriaren 3an argitaraturiko 8º Gomendioa da, zigortze gaietan Justizia Errestauratiboaren erabilera bultzatzen duena. Nahiz eta aipaturiko gomendioa zuzenbide malgu edo *softlaw* deituriko araudia denez, Europako estatuek ez dute bete

edo praktikan jartzeko beharra. Baina neurri batean, Administrazio publiko ezberdinetan Justizia Errestauratiboaren erabilpena jaurtitzera eta Zigor Justizian ere paradigmaren erabilera sustatzera bultzatu zuen, eta Eusko Jaurlaritza izan zen gomendioen erabakia eta neurriak hartu zituen Europako lehen administrazioa, Justizia Errestauratiboaren Zerbitzua (JEZ) eratu zutelarik.

Europar Batasunak egindako esparru-erabaki eta zuzentarauak ordea, ezaugarri loteslekoak izaten dira. XIX. mende hasieratik egindako lanetan, aipagarrienak edo garrantzitsuenak Kontseiluak 2001. urteko martxoaren 15ean argitaraturiko 2001/220/JAI Esparru-Erabakia da, zigor prozesuetan biktimek izan behar duten posizioa lantzen bai du. Era berean, 2012/29 Zuzentzua, 2012ko urriaren 25ean Europako Parlamentu eta Kontseiluak argitaraturikoa garrantzitsua da. Delitu baten biktimak dituen eskubide, laguntza eta babesaren inguruko arau minimoak finkatu zirelako, bai eta JEZ eskaintzen dituen bermeak ezarri zirelako. Bereziki aipagarriak 4.1j, 2 eta 12. artikulua dira.

Kooperazio juridikoaren Europar Kontseiluak araudien asimilazioa lantzen du ere kide diren estatuetan (SOLETO, 2013: 82. Or). Honek estatuko eremuan eraginak sortu zituen, eta Espainian, bai eta EAEn, paradigma honi bidea irekitzen hastea eragin zuen.

Espainian, abenduaren 28ko 2004/1 Lege Organikoaren 87.ter. artikulua zehaztu zen, genero indarkeriaren aurkako babes integraleko neurrien alde. Bitartekaritza genero indarkeria kasuetan erabilia izatea debekatu zen, espainiar legegintzan hala definitzen den bezala.

Aurrerago, apirilaren 27ko 2015/4 Legean Biktimaren Estatutua eratu zen. Biktimetara hertsatzen da eta haien ondasun material zein moralen defentsa sustatu nahi zen, ohorea aitortu eta materia honetan araudi europarraren bidea ezartzeko, gizarteko eskariarekin bat eginez. Justizia Errestauratiboaren terminoari lehen aipamen zuzena egin zitzaion. Dena den, ez ditu Justizia Errestauratiboaren beste hainbat helburu aipatzen ez eta delitua edo delitu egilea kontuan hartzen (DEL RÍO, 2015: 165. Or.).

Garbi dago kaltetuen eskubideak babesteko sortu zela, eta prozesuan zein prozesuarekiko laguntza edo babesa duten posizioa juridikoki sagaratu nahi zen (DEL RÍO, 2015: 165. Or.). Estatutuaren sarreran azaltzen denez, helburua biktimei botere publikoetatik erantzun zabalena eskaintzea da. Marko prozesu penalean erreparazioa bilatzeaz gain, beste efektu traumatikoak moral zein beste baldintzen minimizazioa bilatuko da, egoera prozesala edozein dela ere. Horregatik esaten da eskubide prozesal



eta kanpo prozesalen katalogo orokorra izatearen bokazio dela delituen biktima ororentzat. Aurretik aipaturiko Europar Batasuneko 2012/29 Zuzentarauaren eskakizunei betearazpena egiteko sortu zen.

5.1. j artikuluan adibidez, biktimek botere eskudunen lehengo kontaktuan, lege eta kasuaren arabera eskuragarri dituzten JEZ berri emateko beharra jasotzen da.

15. artikulua JEZ erabiltzeko bete behar diren ezaugarriak azaltzen ditu: delitu egileak bere erruduntasuna eratorri duten egitateak onartzea; biktimak justizia egikaritze mota honen informazio eta izapidetzea ulertu eta baimena ematea; delitu egileak bere baimena ematea; bitartekaritza edo erabiliko den gailuak biktimaren segurtasunerako arriskurik ez izatea edo biktimaren garapenean eragiteko arriskurik ez egotea; eta araudian kasuaren delituan justizia egikaritzea onartua egotea. Hemen Justizia Errestauratiboa esplizituko jasotzen da lehen aldiz. Legegileak delitugile eta biktimaren bitartekaritza kontzeptua erabiltzeko aukera zuen, baina zuzentzarauko izendapena jarraitzen du.

Aipamena merezi duen azken artikulua 29. da. Justizia paradigma honen laguntza betekizuna aipatzen da, biktimen sorospen bulegoek (SAV) era anitzeko arreta eman eta JEZ judizioz barneko prozesuak erraztuz gauzatu behar duten praktika. Araudiak mugatzen duen zehaztapenetan, bulegoetan JEZ laguntza eskainiko da, bai eta konponbide kanpo prozesalekin. Batzuetan bulegoak Justizia Ministerioaren menpean egongo dira <sup>4</sup> eta bestetan, Autonomia Erkidegoen ardura dira eskuduntza dutelako, gehienek behintzat, justizia gaien kudeaketan. Zerbitzu hauetarako araudi zehatzik ez dagoenez, modelo eta garapenen konfigurazioa oso ezberdinak dira (RODRIGUEZ PUERTA, 2006: 407-430 Or.). Intentzioak onak diren arren, arlo ekonomikoa oinarritzko oztopoa izaten da.

Biktimaren Estatutuan logikoa denez, nahiz eta helburua biktimaren erreparazio material eta morala dela adierazi, Justizia Errestauratiboaren hurbilketa nahiko mugatzen da, ez direlako beste helburu batzuk aipatzen. Hala ere, nahiz eta ez zuzenean ipini, bitartekaritzaren izadia eta programak orientatzeko irizpide errestitutiboak, parte hartze aktiboa eta bestelako paradigmaten helburuak prozesuan bertan egotea ahalbidetuko du (DEL RÍO, 2015: 166. Or).

---

<sup>4</sup> Indarkeriazko eta askatasun sexualeko delituen biktimentzako Asistentzia Bulegoak. Justiziaren Ministerioaren menpekoak diren bulegoen informazioa.  
<http://www.mjusticia.gob.es/cs/Satellite/Portal/es/servicios-ciudadano/oficinas-asistencia-victimas>

Abenduaren 11ko 2015/1109 Errege Dekretuak, biktimaren estatutuaren ondorioz garatua izan zen delituen Biktimen Asistentzia Bulegoak erregulatzeko.

Helduen zigor zuzenbidean 2015eko Zigor Kodearen erreformek ere Justizia Errestauratiboaren zantzu eta kutsua eragin zuten, nahiz eta ahulak izan. Zigorraren ordezkapenean (80. art. eta hurrengoak) egindako aldaketa interesgarria da ZK lehen aldiz ondorio zuzen eta esplizituak hausnartzen dituelako bitartekaritza penala erabiltzerakoan. Beste gailu batzuk, hala nola gizarterako lanak, ez ziren premisa errestauratibo gisa konfiguratu baina praktikak paradigmaren helburuak betetzea ahalbidetzen duela jakina da. Gizarterako laneko zigorrak erreparazio gaitasuna du eta Justizia Errestauratiboaren gailu erabilgarria kontsidera daiteke (DEL RÍO, 2015: 156. Or.). Baldintza garrantzitsuena delitugilearen onarpena beharrezko dela da.

Santzioaren orientazio bergizarteratzailea zigortuaren kooperazioarekin lotuta doa, delitugilea prozesuan zuzenean sartzen delako. Doakotasunean oinarrituriko lanak izatea, orientazio erreparadorea eta kaltea konpentsatzeko esfortzuen isla da. Erabilgarritasun publikokoa izateak komunitatearen erreparazio sinbolikoa adierazten du aldi berean (BLAY, 2006: 108. Or.).

Delituaren ondorengo aringarri positibo gisa ere jasotzen dira Justizia Errestauratiboaren printzipioen kutsuak kontsideratzen dira, aitormenaren aringarri eta kaltearen erreparazioa aipatzen dira ZK 21.4 eta 21.5. artikuluetan.

Bestalde, baldintzapeko askatasuna lortzeko baldintzak 90. artikuluan jasoak, praktikan erantzukizun zibila asetzeko konpromisoak egoera arintzen du (MIR PUIG, 2015: 156. Or.). Nahiz eta Justizia Errestauratiboa eta adostasunak haratago doazen, elementu honek delitu egile eta biktimaren elkar arteko negoziaketa puntua nabarmentzea garrantzitsua da. Kasu batzuetan, delitu egileak biktimen erreparazio programetan zein tratamendu edo desintoxikazio programetan parte hartuko duela ziurtatzea beharrezkoa da, subjektu aktiboaren ardura gako izango da beraz.

Ofizioz jarrai ezineko arau haustea edo kaltetuaren barkamen kasuetako prozesu penalean biktimaren eragina ere gakoa da. Delitu pribatu edo erdi pribatuetan, edo arauak zehazten duenean pertsona kaltetuaren esku uzten da prozesua habian jartzea, bere interbentzioa salaketa edo kereilaren aurkeztean beharrezko izanik. Kasuan biktimaren esku dago justizia prozesua martxan jarri edo beste bideen baitan arazoa konpontzea.

Beraz, nahiz eta oraindik Justizia Errestauratiboaren helburu eta oinarriak urriak izan, paradigmari bidea irekitzeko aukera ezberdinak begiesten ditu Zigor Kodeak, eta

bitartekaritza bitartez adosturikoei eraginak xedatzen dizkio. Zigorren ordezkapena bitartekaritzaren bitartez adosturiko prozesuetan bakarrik onartzen da, aipaturiko besteetan ez dira helburu errestitutiboak duten gailuak kontsideratzen, nahiz eta egungo praktiken kutsu errestitutiboaren isla dira. Erreformen berritasunek, helduen bitartekaritzari garrantzia ematen zaiola adierazten du, eta Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrak Justizia Errestitutiboaren programei sustapena eman nahi diola (DEL RÍO, 2015: 147. Or).

Hala ere, ZK aldaketak eta Biktimen Estatutuaren lege sarbidea momentu antzekoetan eman zen arren, harmonizazio falta nabari da. Estatutuan Justizia Errestitutibo kontzeptua jasotzen da; ZK ordeak kontzeptu murriztuagoa erabiltzen da bitartekaritza penala aipatuz bakarrik, baina gailu errestitutiboaren sarbidea onartzen joan da (DEL RÍO, 2015: 146. Or).

Aipaturikoaz gain, estatu mailan ez da paradigma sustatzeko beste aldaketa edo saiakuntzarik egin. Terminoa erabiltzen hasi eta kutsuak nabaritu daitezkeen arren, zehaztu eta sakontzeko falta sumatu daiteke.

Hala ere, guzti honek, EAEn eragin zuzena izan du. Lehen azaldu bezala, Europar Kontseiluko gomendioak Eusko Jaurlaritza Europako JEZ sortu eta ematen duen lehen administrazio publikoan bilakatu zuen. Era berean, 2019. urteko Koordinazio Protokolo Interinstituzionala sortu zuen, Euskadiko JEZ zigor jurisdikzio eta operadore tara bideratua. Araudiaren defizitak, funtzionamenduaren akordioak hartzea nahitaezko ikusi zuen, protokolo gisa izendatuz.

Paradigmaren eboluzioa da protokolo honen oinarria. Ondoriotzat bitartekaritzaz gain egon daitezken prozesu errestitutiboak handitzearen beharra, operadore juridikoen kultura aldaketaren sustapenaren beharra (bereziki organo judizial eta Ministerio Fiskalaren aldetik), Justizia Errestitutibo kasuen eratortze irizpideen berrikustea, prozesu errestitutiboaren helburu finkatuen berrikuspina eta JEZ praktikak eta pertsonala berrikustea bezalako eginbideak beharrezko ikusi ziren. Azken finean, honen bitartez Euskal Herriko Justizia Errestitutiboaren zerbitzua sustatu eta garatu nahiko da, Justizia Administrazioaren markoan gatazken ebazpenak aldizkatzearekin batera.

### -2.1.3) Oinarri eta balio teorikoak:

Orain arte paradigmaren beharra eta sorrera azaldu dira. Baina justizia egikaritzeko mota honek oinarrian dituen funtsezko edo pilareak oraingo hauek dira: biktima zein delitu egilearen eskubideen integrazio eta legezko itzaropena lortzea; justizia administrazioan eraldaketa bat lortzea non elkarrizketen bitartez alderdi kaltetu eta akusatuaren parte hartze aktibo onartzen den, gizartearenarekin batera; eta sortutako kalteen berritze eta errestituzio xedea (IGARTUA, 2017: 22. Or.).

Oinarrian beraz egitate kriminalaren pertsona inplikatuak eta bereziki pertsona kaltetuak daude. Hala ere, ideia honen barruan maila teoriko edo kontzeptualean paradigmaren aldeko mugimendu ezberdinak daude, eta haien arteko ezberdintasun gradua praktikan antzematen daiteke, aurrerago azalduko direnak (DEL RÍO, 2015: 54. Or.).

Ohitura, sinesmen, jarrera arauak eta printzipio onuragarriek zehazten dituzte balioak, izan kulturak, pertsona talde batek edo norberak aintzakotzat hartzen dituenak. Justizia Errestituzioaren balioek delitua pertsonen eta harremanen aurkako bortxaketatzat hartzea eragiten du (IGARTUA, 2017: 29. Or.).

Doktrinaren atal batek, araudien balioak – hala nola: erantzukizun aktiboa, bizikidetasun baketsua, errespetua eta solidaritatea – eta operazio balioak – erreparazioa, laguntza, lankidetzeta, ahalduntzea, topaketa, inklusioa, heziketa morala, babesa eta konponbidea – bereizten ditu. Beste batzuk ordea, talde ezberdinetan banatzen dituzte. Alde batetik balio prozesalak – errespetua, duintasuna, inklusioa, ardura, segurtasuna, sendaketaren sustapena, apaltasuna, elkarrekiko zainketa, erreparazioa, dominazio eza, etab. - eta bestetik balio pertsonalak bereiziz – ardura, erruki, pentsamolde malgua, pazientzia, etab. (IGARTUA, 2017: 30. Or.).

Kasu hauetan, hainbat ohar partekatuta daude: delituarengatik kaltetuak izan direnekiko duintasunaren errespetua; elkarrekiko ulermena (ez justifikazioa) delituzko jarreraren ardurarena; komunikazioa era ireki eta errespetuzkoan adierazteko errekurtsio bezala; eta pertsona kaltetuenganako behar gizatiarrak lehenestea (OLALDE, 2010: 766-768. Or.). Justizia Errestituzioaren praktika onen estandarrak hiru ardatz nagusitan laburtu daitezke beraz: biktimizazioa arindu, delitu egileekiko estigma jaitea eta alderdi inplikatuaren asebetetzea, zentzu zabalean, prozesu errestituzio eta emaitzekiko.

#### -2.1.4) Justizia Errestauratiboko prozesu edo gailuak:

Justizia Errestauratiboaren markoa, Zuzenbidearen Estatua sistema gizatiar eta bermatzailea sustatzea da delitu egile eta biktimentzat. Zuzenbide prozesalari zailtasunak suposatzen dizkio prozesuaren modalitate ezberdinetatik aukeratu beharra ahalbidetu behar duelako, berme eta interrelazio dinamikoak ziurtatuz (IGARTUA, 2017: 32. Or.). Delituak kaltea biktima eta komunitateari gauzaten dizkionez, paradigmak erreparazioa protagonisten esku eta haien parte hartzearen bitartez lortu behar dela aldarrikatzen du. Horregatik, erabiliak diren gailu edo programa errestauratiboetan pertsona kaltetu, kalte egile eta komunitateko kaltetu edo partaide direnen parte hartze zuzena sustatuko da, egoerari erantzun gizatiarrena bilatzeko.

Praktiken artean, bitartekaritza da Europa mailan hedatuena, eta IGARTUAK (2017: 33. Or.) argitzen duenez, praktikak huts egite okerra suposatzen du batzuetan bitartekaritza Justizia Errestauratiboarekin parekatzen delako, sinonimoak direla ustez edo gailu edo teknika bakarra izan daitekeela ulertzera eramaten duelako, nahiz eta ez den hala.

Azken urtetan zabaltzen joan diren Justizia Errestauratiboaren prozedimendu ezberdinak deskribatzea garrantzitsua da jarraian dagoen praktika aztertu eta duten eraginkortasuna ulertzeko. Orokorrean, hirugarren pertsona neutralak delitu egile eta biktiman (zuzen edo komunitateko kidekin) elkar eragiten du, errazte tekniken bitartez. Ezberdinak izango dira parte hartzaileen arabera jarduteko prozedimendu eta helburuak (SOLETO, 2013: 82. Or.).

Nazio Batuen arabera, sei dira prozesu errestauratiboaren modalitateak eta OLALDERen klasifikazio sistemaren arabera honela azaltzen dira (2010: 770-771. Or.):

##### 1) Pertsona kaltetu eta delitu egile arteko zeharkako elkarriketa erraztua:

Ez dago zuzeneko kontaktu fisikorik, eta bi alderdiek zeharkako interakzioa gauzatuko dute, teknologia aliatu gisa erabiltzeko aukerarekin. Pertsona bideratzailearen presentziak prozesuaren egokitasuna, ingurune babestua ahalbidetu, prozesua eta zeharkako komunikazioa prestatu eta alderdiek adosturikoa jaso beharko du. Prozesu hau egokia da alderdien artean desoreka egoera ematen denean, edo zuzeneko elkarriketa bi alderdietako baten aldetik errefusatu denean, bai eta errekurtsio faltak lekuko elkarriketa galarazten duenean. Prozesuan baino gehiago, fokua adostasunean jartzen da.

Praktikan, Europako prozesu asko bide honetatik jarraitzen dira, balorazio positiboa duelako, nahiz eta ikertzaileek topaketa zuzenekoaren denean eraginkorragoa dela frogatu duten. Praktikaren adibide kaltetu eta delitugile artean zeharkako bitartekaritza da.

2) Pertsona kaltetu eta delitu egile arteko zuzeneko elkarrizketa erraztua:

Hirugarren pertsona bideratzaileak alderdiak indibidualki aztertuko ditu prozesuaren egokitasuna, ingurune babestua ahalbidetu, prozesua eta zuzeneko komunikazioa prestatu eta alderdiek adosturikoa jaso beharko du topaketarako. Kasu honetan, elkarrizketak adostasunak baino garrantzi handiagoa du. Europar Batasun eta Espainian dagoen prozesu hedatuena da, eta adibide gisa kaltetu eta delitu egile arteko zuzeneko bitartekaritza aipatu daiteke.

3) Pertsona kaltetu eta delitu egile, laguntza pertsonen eta gobernuko pertsonalaren elkarrizketa erraztua:

Kasu honetan familia, eskola eta gizarteko alderdiek parte hartu dezakete. Duen dinamika prozedimentalak elkarrizketa erraztaile eta erreparatzailea bermatu nahiko du, eta kasu honetan, eztabaidak delituzko egitate zehatza gainditu ohi du, eta pertsona kaltetuen azpiko gaiak lantzen amaitzen da. Hitzaldiak komunitateko zentro, eskola edo polizia zein adingabeen babes zentroetan gauzatu daitezke, eta ez du garrantzi prozesalik izango, hau da, gaia ez da justizia sistemara iritsiko ez eta tribunalek parte hartuko. Adibide familia hitzaldiak edo komunitateko hitzaldiak dira.

4) Pertsona kaltetu eta delitu egile, laguntza pertsonak, gobernuko pertsonal eta komunitateko kiden arteko elkarrizketa erraztua:

Kasu honetan, elkarrizketa bideratzaileara komunitateko kideak batzen dira, erlazioa izan edo eduki gabe. Aurreko formatua du eta elkarrizketak egitate deliktiboa gainditzen du normalean, barrutiko gaiak ukituz. Adibide epaitze zirkularrak edo bakearen zirkuluak dira. Epaitze zirkular edo praktika honetan, epaileak zirkuluan parte hartzeko aukera dago baina berez duen parte hartzea ez da elementu nagusia, ezta bideratzailea. Epailearen egin beharra sententzian adosturiko plana irudikatzea da eta kontsentsua lortzen ez den kasuetan esku sartze aktiboa gauzatu dezake.

5) Pertsona kaltetu, delitu egile eta beste alderdien arteko elkarrizketa:

Aurreko edozein formatuan eman daiteke elkarrizketa mota hau, haiek ordezkatu edo osatzeko. Pertsona kaltetu eta delitu egilearen presentzia beharrezkoa da, besteen agerpena hautazkoa izanik. Pertsona bideratzailearen rola aldatzen da, eta zuzendari papera hartuko du, adostasunari zuzendua.

Biktima, delitu egile eta pertsona bideratzailea baino alderdi gehiago tartean sartzekoan hitzarmen eta zirkulu izenarekin ezagutzen da prozesu errestitutiboak. Gure testuinguruan, gizarte zerbitzuen eta justiziarekin kooperatzen duten instantzien esku dago. Doktrinaren ustez, alderdi boteretsuak jokoan sartzekoan berdintasun eta informaltasuna gutxitzen da, eta gatazken konponbiderako komunitateko dimentsioa distortsionatu daiteke. Adibidea bitartekaritza zibileko prozesuak, Estatu Batuetako zirkuluak, hitzarmenak, epaitze zirkuluak edo bakearen zirkuluak izan daitezke.

6) Pertsona kaltetu, delitu egile eta beste alderdien arteko elkarrizketa arbitratua:

Aurrekoak bezala, kaltetu eta delitu egilearen presentzia behar da, hirugarrengoa aukerazkoa izanik. Bideratzaileak alderdien elkarrizketa antolatuko du, eta rol arbitrala hartzen duen kasuetan, erabakia hartu behar da. Adibide erreparazio batzarrak edo jatorrizko lehen praktikak izan daitezke.

Doktrinak, ulermena errazteko praktiken artean bereizketa egiten du praktika guztiz errestitutiboak, – konferentzia eta zirkuluak- printzipalki errestitutiboak – biktima eta delitu egilearen bitartekaritza, biktimarik gabeko konferentziak, komunitate terapeutikoa, biktimen aldeko laguntza programa komunitarioak – eta partzialki errestitutiboak direnen artean – biktimen asistentzia, kaltearen ordainketa, gizarterako lanak, panel errestitutibo edo gizarteratze programak (IGARTUA, 2017: 34. Or.).

-2.1.5) Eztabaida doktrinala:

Oinarri teorikoak lantzerakoan, doktrinak paradigma ulertu eta aplikatzeko bereziki bi korrante bereizten ditu: modelo minimalista eta maximalista (DEL RÍO, 2015: 56. Or.).

Modelo minimalistak, *purist model* bezala ezagutua, elementu errestitutiboak barneratzen ditu bakarrik, ordainsari modelo edo birgaitzekoa alde uzten bai ditu.

Modelo honen barnean sistema errestituatiboaren garapena defendatzen da, justizia sistema tradizionalaren paralelo bilakatuz. Zentzudun eta onartuena da, eta BRAITHWAIE da modelo honen ordezkari adierazgarriena.

Korronte honek Justizia Errestituatiboa prozesuan sartuta dauden alderdien elkartze bezala definituko du, delitua eta honek dituen etorkizuneko ondorioei erantzuna emateko helburuarekin (MARSHALL, 1995: 37. Or.). Prozesuan oinarrituriko filosofia jarraitzen du teoria honek, eta paradigma aldizkatze bide gisa ikusiko du, desbideratze kanala delako, justizia sistema tradizionalaren gai egokiak konpontze bide honetara bidaltzen bai dira. Justizia Errestituatiboa sistema garaikidearekin paraleloki eta aldi berekoa izatea sustatzea kontentatzen du (DEL RÍO, 2015: 55. Or.). Oraingoz Justizia Errestituatiboaren literaturan ez da printzipio eta irizpide komun sustatzailerik lortu, baina modelo honen elementu goresleentako bat kasu konkretuko alderdiei arreta eskaintzeko aukera eta modua da.

Bestalde, modelo maximalista edo orokorra ezberdintzen da, aurreko modeloaren antagoniko gisa ezagutzen da, ez delako jarraibide aspektuan ezta honen ondorioetan oinarritzen (DEL RÍO, 2015: 56. Or.).

Modeloaren definizio eta ezaugarriek, WALGRAVEN eraikuntzara eramaten dute, modeloaren aitzindaria den eta “berezko ongi komuna” zein Justizia Errestituatiboaren “etika sozialaren” ikuspuntua eta fokua eman nahi izan diona. Filosofia errestituatiboa zigor zuzenbidearen markoan kokatu zuen, beste esparru sozialekin batera, demokrazia parte hartzailea bezalakoarekin. Korronte hau Justizia Errestituatiboaren posizio erradikalena gisa definitu daiteke eta pentsamendu abolizionistari lotuta doa. Nahiz eta gutxiengoen korronte izan, jarraitzen duen filosofiak geroz eta onarpen hedatuagoa du.

Korronte honen aburuz, Justizia Errestituatiboa ezin da bakarrik prozesu gisa ulertu, ezin daiteke biktima eta delitu egilearen komunikazio momentu prozesalean zentratu, delitu batek sortutako kalteekiko egiten den ekintza bakoitzean proiektatu behar da, oinarritzko helburutzat kaltearen erreparazioa duten ekintza guzti horiengan (BAZEMORE, 1999: 45-74. Or.). Horregatik, Justizia Errestituatiboaren definizioan korronte minimalistak jasotzen ez dituen neurriak barnebiltzen dira hemen, hala nola: gizarterako lanak, biktimen sostengu neurriak, biktimen konpentsazioa, etab. (DEL RÍO, 2015: 57. Or.). Hau da, delituaren ondorio juridikoetan sartzen den kudeaketa, erantzukizunean, biktimaren arretan eta aipaturikoetan, kutsu errestituatiboa sartu daiteke praktika delitu egile-biktimaren topaketaren espaziora mugatu dez.



Hala ere, korrontearen funtsezko helburua delituari erantzuna emateko borondatezko prozesua izan behar dela sustatzea da, parte hartze horri esker helburu errestitiboen eraginkortasuna handiagoa bai da. Baina borondatezko parte hartzea posible ez denean, sartzio erreparadore edo errestitiboak ezartzeko oztoporik egon behar ez litzakeela defendatuko du ere (WALGRAVE, 2001: 17-37.Or.). Berez paradigma berria zigor zuzenbidearen berezko oinarrietan kokatzen dela defendatzen du eta Justizia Errestitiboaren orientazioa modu transbertsanean barnebidu daitekeela (PETERS, 2000: 35-46. Or.).

Erantzun penalaren indibidualizaziorako borondatezko prozesua edo tradizionala izan daitekeela alde batera utziz, erantzuna sortutako kaltearen erreparazioa bilatzean iradoki behar dela defendatuko da, eta delituak kaltetutako tentsioen oreka faltan. Behin betikotasunez, delitu egilean esku hartzearen oinarria gauzatutako kaltearen “errestititze” beharrenez dela defendatzen da. Errestitizio hori sortutako alterazioaren errealitatera doa lotuta, ez ondasun juridikoen itxurakeriaren alde formalera; kaltetua izan denaren edo kaltetua izan den harremanaren alderdi empirikora. Horregatik, zigor errestitiboak ohiko zigorretatik desberdindu behar dira, zigorrak ez dutelako helburutzat delitu egilean mina gauzatzea, hori zeharkako ondorio bat izan daitekeelako.

Teoria maximalista orokorrean, oinarrien nukleoaren erdigunean kokatu nahiko da edo zigor justiziaren zantzuan, eta zigorra sententzia edo aldizkatze baliokidetan proiektatua izatea bilatuko du. Biktimaren erreparazioaz haratago, erantzun penala kalte soziala erreparatzera bideratu behar dela eta delituaren autoreak bere bizitzako inguruko erlazioetan sortutako kalte arrazionalak erreparatzera bideratu behar delaren garrantzia azpimarratzen du (DEL RÍO, 2015: 59. Or.).

Modelo teoriko honen ohiko kritika paradigmaren praktikak zigor zuzenbidea pribatizatzen duela da, edo hobeto esanda, zuzenbide zibilaren ezaugarriak berezko egiten dituela. Nahiz eta horrela ez izan, zigor zuzenbidea gailu “zibilizatuagoa” izateko proposamen gisa ikusi daiteke, prozesu zibilizatuarekin bat datorrelako (DEL RÍO, 2015: 59. Or.). Walgravek Eliasen “zibilizazio prozesuaren” ideian oinarritu zuen bere teoria, zibilizazio prozesua gizarte eta komunitateen hiritarren artean erlazio konstruktiboagoak izateko bidea dela defendatuz, indarkeria eta hertsadura al den neurrian baztertuz.

Berez, delituari erantzun zibilizatuagoa eskaintzeko aukera gisa ikusten da, lehenasuna parte hartze eztabaiden konponbideei ematen zaiolako, goitik inposaturiko

erantzunei orde. Berezko interesak hobekien asebetetzeko interes komunak integratu behar dira, forma positiboan bihurtzen dituelako. Autonomia lortzeko “bestearen” beharra dugu, komunitatearena, eta horregatik pertsona arteko erlazioak eta elkarrekiko dependentziak era arin eta naturalean funtzionatzen du errespetu eta ulermenean oinarrituta (DEL RÍO, 2015: 60. Or.).

Komunitatearen ideia baino interesgarriagoak dira balore sozio etikoak, komunitarismoaren ideia sustatzen dutelako (WALGRAVE, 2001: 77. Or.). Oinarri sozio etiko analizatuek ez dute delituaren erantzun eraikitzailea eskaintzen bakarrik, ideia zentrala gizartea gobernatzeko hiritarren parte hartze erabakigarrian dago, eta eguneroko elkarrekintza nola gauzatzen diren. Justizia Errestauratiboa demokrazia justu eta parte hartzaile honen aldeko mugimendua da baina duen posizioak delituari erantzuna emateko erantzunera mugatzen du (WALGRAVE, 2001: 169 Or.).

Arau hausleak era aktiboan kaltearen erreparazioan parte hartu beharko du eta biktimak, bere aldetik, konponbide baketsua lortzearen ardura hartuko du. Prozesu erreparatiboetan parte hartzeak beraz, interes orokorren sustatzeak zuzenean bueltan asebetetzea dakarrela estimatu daiteke (DEL RÍO, 2015: 62. Or.).

Justizia Errestauratiboa populismo zigortzailearen galga eta alternatiba bezala aurkezten da, abolizionismoaren osagarri konstruktiboarekin batera. Gatazken erabakitasun modelo bateragarriagoa da hau estatu demokratiko batean, justizia modelo horizontaltzat jo behar delako, ez ezarria, eta horrek erantzun penalaren onarpen eta norberaren asebetetze graduan eragina izango du (MARTINEZ ESCAMILLA, 2008: 439. Or.).

Erreparazioa, zigor zuzenbidearen helburuen ikuspuntutik hartuta, kulpa edo erantzukizuna konpentsatzeko modua da, baina aurrezaintza orokorra eta berezian jarduteko boterea du era berean. Aurrezaintza orokorraren aldetik, biktimaren eta gizartearen aurrean erantzukizunaren onarpena galdatzen zaiolako delitu egileari, eta horrek delituaren bake juridikoaren erreparazioa laguntzen du (GARRO, 2006: 14. Or.).

Aurrezaintza bereziaren aldetik, delitu egilearen liskar eta konfrontazioak zein ekintzen ondorioek, biktimaren bizipenekin batera, efektu gizarteratzailea eduki dezake, irakaskuntza suposatu eta bestekiko errespetuan amaitu. REGGIOk markatzen duen bezala (2013: 315. Or.), Justizia Errestauratiboaren proposamena elkarriketaren proposamenaren parametro filosofikoetan barneratzen da, zeinen jasandako garapen garaikidearen egungo kultura juridikoaren adierazlea den. Kultura demokratikoak

eskutik Justizia Errestauratiboa helduta izateak, ondorioz zigor jurisdikzioaren praktika eta kontzeptua erronkan ipintzen du, eta zigor zuzenbidearen azpiko filosofia, sistema eta ideiak berriz hausnartzera gonbidatzen du.

Delitua gauzatu eta kaltea (banakako zein soziala) eragin duen hiritarra arautegiaren aldetik pertsona gisa tratatu behar da, ez munstro bezala. Eta honek, paradigmaren perspektiba ahalduntzen du: delitu egilearen, biktima eta gizartearen rola zein eman beharreko erantzunek gizarte demokratikoa sustatu eta babestu behar dutela defendatzen duelako. Justizia Errestauratiboak, begirada zabal batetik hartuta, delitu egile, biktima zuzen eta gizartea oro har barne hartzen ditu eta honela duen bokazioaren eduki sinboliko komunikatiboa ezagutarazten du, erantzun penala indartu eta justiziaren modelo demokratikoa finkatuz (DEL RÍO, 2015: 66. Or.).

## -2.2) Justizia Errestauratiboa EAeko helduen gatazka penalen kudeaketan:

Euskadiko Justizia Administrazioak eskuragarri duen Justizia.eus<sup>5</sup> webgunean azaltzen duen bezala, 2007. urtetik Euskadin Auzitegi Barruko Bitartekaritza zerbitzua (SMI) eskaintzen da, lehen Zigor-Arloko Bitartekaritza Zerbitzu deitua (SMP). JEZ sorrerak aldaketa eragin zuen sisteman, auzien alderdi eta komunitatearen parte hartzea ahalbidetzen duelako.

Zerbitzua epaitegien kooperaziorako jaiotzen zen, gizartean bakea erdiesteko helburuarekin bat. Zerbitzuak praktika gizatiarren baitan jarduten du, eta prozesua eman dadin, epaileak auzia JEZ bideratu behar du.

EAEn garatutako programa errestauratiboak nabarmentzea garrantzitsua da izandako eragina eta eguneko eraginkortasuna ulertzeko: (IGARTUA, 2017: 69-70. Or.).

-Aitzindari izaera du, Kataluniarekin batera, estatuan zerbitzua sortu eta mantentzean lehenak izan zirelako.

- 2012. urtean onartutako jokaera Protokoloa berrikusi zen, epailetza, Ministerio Fiskaltza, abokatutza eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzaren arteko adostasunez sortutakoa, eta beste autonomia erkidegoen eredu baliagarritzat balio izan du. Partidu judizialak era homogeneo eta koordinatuan zerbitzu publiko honen

---

<sup>5</sup> Hemendik eskuratua <https://www.justizia.eus/justizia-errestauratiboa>

sustapenean aritzeko bokazio gisa sortu zen. Prestaketa parte hartzaile ezberdinei esker hornitu zen: operadore juridiko, bideratzaile, Euskadiko administrazioaren pertsonal tekniko edo ikerketa zientifikoetan jarduten duten pertsonalarekin.

-Espainiar estatuan 2012. urtera arte gardentasunez programetan aktiboki ibili den erkidegoa izan da, eta 2019ko protokoloko datuen argitasunarekin antzeko bidea jarraitzen du.

-Bideraturiko modelora esleitzea lortu du, arau hauste penal guztiak programa errestitutiboen bitartekaritzara eratorzeko sentiberak izan daitezkeela jasotzerakoan, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Auzitegien kasu tramitatuak salbuespen diren arren.

-Pertsona biktimizatua edozein dela ere, prozesu errestitutiboen garapena onartzen da ondasun juridiko kaltetuaren erdiespenak baimena ematerakoan, eta kasua JEZ igortzen zaio.

-Atal prozesalean dauden pertsona kaltetu edo inplikatuetikiko lotura emozional edo profesionala duten interesdunei prozesu errestitutiboen elkarrizketan parte hartzea onartu eta gonbidatzea ahalbidetzen du.

2007an Euskadin ezarritako lehenengo Auzitegi Barruko Bitartekaritza zerbitzuaren (SMI) emaitza positiboan osten, esperientzia Barakaldo eta Gasteizen hasirik, 2008 eta 2009 urte bitartean zerbitzua Bilbo eta Donostiara zabaldu zen (IGARTUA, 2017: 72. Or.). 2008. urtean Bitartekaritza Penalaren lehen Protokoloa atera zen, eta hasieran SMP zirenen funtzionamendua erregulatzen zuen, organo judizialen erlazioa zehaztu eta kasuen igortze eta eratorpena finkatzeko. 2011ean Euskadiko Auzitegi Barruko Bitartekaritza zerbitzua (SMI) izatera pasa zen eta esan bezala, 2012. urtean protokoloa berriz aztertu eta zehaztu zen. Gaur egun, jarraian aztertuko den azken 2019. urteko jardute Protokoloa dago ezarrita.

### -2.2.1) Eskura dauden baliabide publikoak:

EAEn Justizia Errestitutiboa 2007. urtetik egikaritzen den arren, baliabide publikoa aldatzen zein zehazten joan da. 2016ko ekainean, Donostian gauzatu zen *Justizia Errestitutibo eta Terapeutikoa: Justiziaren jarraibide berritzaileen bila* deituriko lehenengo Kongresu Europarrak ere eragina izan zuen, izan ere, Eusko

Jaurlaritzak ondorengo konpromisoa hartu zuen: Euskadin jada zegoen jarraibide judizial errestitatiboa berritu eta eredu zigortzaile tradizionalarekin alderatuz era eraginkor zein gizatiarragoan ezartzea.

Eusko Jaurlaritzaren bozeramale eta Herri Administrazio eta Justiziako sailburukoa den Josu Erkorekak Eusko Jaurlaritzak paradigmarekiko dagoen konpromisoa berretsi zuen. Gainera, honen praktikak Eusko Jaurlaritzaren aburuz onura batzuk bermatzen ditu<sup>6</sup>: auzitegien lan zama arintzen da, justizia egikaritzea bizkortzen du eta errekurtsio publikoen erabilera arrazionalizatzen du. Justizia bide honek delituarengatiko kaltearen erreparazioan ipintzen duenez enfasia, delituaren larritasunaren arabera egitateei irtenbidea ematea alderdien adostasunean uzten da. Eusko Jaurlaritzak ez du Zigor Zuzenbidea ordezkatzeko bilatuko, ezti nahiko du, elkarrizketak Zigor Sistemara erantsiz eta biktimaren kaltea, delitugilearen egoera eta komunitatearen harmonia girotzea lortuko baizik.

Justizia Administrazioak eskaintzen duen informazioan oinarrituz, 2011tik Auzitegi Barruko Bitartekaritza deituriko zerbitzua (SMI) eskaintzen da EAEn. Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia sailaren zintzilikari den JEZk, organo judizial eta hiritarren esku jartzen du bide judizialari osagarri zaion metodoa auzitegiara iristen diren arazoan konponketan jarduteko. Zerbitzuak duen zeregina zigor zuzenbide esparrura fokatzen da eta bereziki helduen prozesu barne judizialean oinarrituko da lana eta ikerketa. JEZk konponbide judizialei aldizkatzea eskaintzen die, delitu egile eta biktimaren arteko elkarrizketa eta hirugarren pertsona bideratzaileari esker zigor prozesaleko markoan adostasun batera heltzeko. Partidu judizial guztietan gauzatu ahalako da (legeak eta kasuak onartzen duenetan) eta dohainkako izaera du.

Justizia sailean azaltzen denez, zigorraren esparruan, delituaren arduradun eta biktimak borondatez arazoa konpontzeari ekitea onartuko zaie JEZ helduz. Protokoloan argitzen denez, (2019: 8. Or.) eskuduntza markoen barruan, bitartekaritza eta arazoan konponbide baketsuak Justizia Errestitatiboa prozesu judizialen formula osagarri edo aldizkatzekoa erabiltzea sustatzeko, 2015eko apirilaren 27an Eusko Jaurlaritzak eta Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrak kolaborazio itun bat harpidetu zuten. Bi alderdiek behar garrantzitsuak onartu zituzten bitartekaritza, Justizia Errestitatiboa eta modu baketsuak Euskadiko Justizia Administrazioan egoki txertatzeko.

---

<sup>6</sup> Hemendik eskuratua: <https://www.justizia.eus/albisteak/justizia-leheneratzaileari-buruzko-adituak-hiruegunez-aritu-dira-donostian>

Eusko Jaurlaritzak, beharrezko baliabide pertsonalak, antolatzaile eta materialak hornitzeko konpromisoa hartu zuen, BJKO informatua izateko eta Justizia Administrazioako langile publikoei prestakuntza irakastekoa. Bestalde, BJKO bitartekaritza eta beste programa baketsuak Euskadiko epaile eta magistratuei ezagutu araziko dizkiela, eta Justiziaren Zuzendaritzaren, zerbitzuen eta organo judizialen informazioa eskuratzean ekingo zuela onartu zuen.

Baliabide argia zigor justiziaren osagarri den Auzitegi Barruko Bitartekaritza zerbitzua (SMI) da beraz, publiko eta doakoa. Prozesu errestitatiboa hasi dadin gatazka epaitegira heltzea beharrezkoa da. Organo judizialak kasua ezagutzean, JEZ eratorri dezake izan ofizioz edo alderdietako batek eskatzen badu, JEZ berak edo Ministerio Fiskalak eskatua. JEZ kontaktuan jarriko da alderdiekin lehen elkarrizketa informatiboa adostu eta beraien onarpena lortzeko, prozedimendu errestitatiboa gauzatu dadin. Zirkulu edo hitzarmenen kasuan, kanpoko pertsona inplikatu edo ordezkariari berdin abisatuko zaie.

Azaldu bezala, JEZ den Auzitegi Barruko Bitartekaritza zerbitzuak judizioetatik kanpo arazoak konpontzeko balioko du, edo xedea hori da: kasuak, ahal den neurrian, judizio eta zigor sistematik kanpo elkarrizketan oinarrituz konpontzea. Gizarteko babesa bermatu nahiko da judizioz kanpoko bideetatik. Administrazio Publikotik gatazken konponketan jarduten duen sistemaren zabalkuntza bultzatu nahiko da, alde batetik kasuak judizioetatik at uzteko eta bestetik, interesen auto osaketak eragina izateko. Orain arte bereziki jarduera errestitatiboa bitartekaritza penal eta familiarrekoa aurreratu da, baina jurisdikzio sozial eta zibilean bidea irekitzeko ahaleginetan dihardu.

### -2.2.2) Indarrean dagoen araudia: JEZren Protokoloa:

Aurretik sortutako Protokoloa berritzearen proposamena, gida marko orokortzat hartzen delako da, eta egokitu beharra dago eman diren arau berri eta Autonomia Erkidegoaren berriarazko antolaketa hobetzeko (Protokoloa, 2019: 8. Or.). Eusko Jaurlaritzak 2007. urtetik duen parte-hartzea Justizia Errestitatiboaren zerbitzu publikoak organo judizialen ahalmen direnetik, hamarkada bat baina gehiago pasa da. Denbora eta esperientziak, paradigmatik Espainian izandako bilakaera eta Nazio Batuen

29/2012 Zuzentarau eta Delituaren Biktima direnen Estatutuan jasotakoa araudira ezarri beharko dira beraz. Aipaturikoek biktimen eskubideen, laguntza eta babesaren arau minimoak ezarri zituztelako, egokitasun printzipioan eta zigorra arintzeko edo uko egiteko bidea sustatu nahian.

Paradigmaren garapena, Protokoloa berritzearen oinarritzko proposamena da beraz, eta ondorio nagusiak gauzatu ditu: prozesu errestitutibo erabilgarriak handitzearen beharra, ezinbestekoa den bitartekaritza gain; operadore juridiko eta bereziki organo printzipal eta Ministerio Fiskalaren kultura aldaketaren sustapena; BJKOko (CGPJ) gida praktikoa paradigmara moldatzea; Justizia Errestitutibora desbideratzeko jarraitzen diren irizpideen berrikusketa; prozesu errestitutiboetan ezarritako helburuen berrikusketa; eta Justizia Errestitutiboaren zerbitzuko pertsonalaren praktika berrikuspenaren beharra dira (Protokoloa, 2019: 7. Or.).

Esan bezala, 2011n zerbitzua Auzitegi Barruko Bitartekaritza (SMI) izatera pasazen, bere jarduketa beste jurisdikzio eta esparruetara hedatzeko, bitartekaritza den aldizkatze formularen baitan arazoei konponbidea emateko (Protokoloa, 2019: 4. Or.). Partidu judizialen zerbitzua zabaldu zen ere, hiritar orok irismena izan dezan, hiritar eskubide gisa konfiguratzea lortzeko. Berritzearen helburuak beraz, jardute ezberdinak argitu, funtzionamendua antolatu eta organo judizial, Ministerio Fiskal eta beste operadore juridikoekin bai eta hiritar kaltetuekin erlazioa zehaztea izango dira. Jarraian aztertuko den 2019ko Protokoloa baina lehen, 2012. urtean egin zirelako azken idatzi eta aldaketak. Zegoen arauemaile defizitak funtzionamendu hitzarmena adoptatzea ezinbestekoa egin du, Protokoloa (2019: 5. Or.). Akordioak kontsentsu eta errespetua merezi du Justizia Errestitutiboaren auzi jartzaileen aldetik, zein Justizia Administrazioiko organo judizial, Ministerio Fiskal, letradun eta alderdien letraduen aldetik.

Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia sailak du paradigmaren zerbitzua hornitzeko eskuduntza, Justizia Administrazioak behar bezala funtzionatzeko beharrezko diren bitarteko pertsonal eta materialaren ardura. Nahiz eta delitu arinak ikusten diren praktika honetarako aiposenak, egokitasunak eta biktimen interesak, delituaren larritasunaren baldintza alde batera kanpo uztearen alde jardun beharko dute.

Kasuak JEZ desbideratzeko modua Protokoloan azaltzen da (Protokoloa, 2019: 33. Or.):

Modelo gaitua bezala ezagutzen da, ez duelako delitu zehatzen katalogorik jarraitzen, edozein delitu motari ematen dio aukera (emakumearen aurkako indarkeria kasuak salbuetsiz). Desbideratzearen irizpide nagusia biktimaren interesa da, hala ere, irizpide gehiago betetzea galdatzen du:

-Prozesuaren helburu nagusia delituaren kaltearekiko erreparazio material eta moral egokia jasotzea izan behar da.

-Biktimaren segurtasuna arriskuz kanpo egon behar da eta bigarren mailako biktimizazioa ekidin beharko da.

-Ikertua den alderdiak leporatzen zaion ardura onartu behar du.

-Prozesu komunikatibo eta errestitutiboan aurre emateko pertsonen baldintza subjektiboak hartuko dira kontuan, biktima eta delitu egilearen artean asimetria egoera ematen ez dela ziurtatzeko.

-Justizia Errestitutibora heltzen diren pertsonen esanahi subjektiboa, testuingurua eta biktimizazioak kaltetutakoa berreraikitzearen beharra aintzat hartuko da. Era berezian balioztatuko dira delituak familia erlazioetan ematean, lagunaren zirkuluak gauzatzean, auzokideen eremua edo laneko eremuan, eta delituarekin erlazioa ez duten gaika eratorri daitezke.

-Arau haustek sortutako gatazka komunikazio eta elkarrizketa erreparatzailearen bitartez heltzeko aukera izan behar du, bideratzaile den hirugarren baten laguntzaz, biktimaren beharrak asebetetzen eta delitu egilearen birgizarteratze aukerak erabaki edo proposatuz.

-Zigor prozedimendua izatea, iraupen eta ezaugarriek prozesu errestitutiboa ezartzea ahalbidetuz.

Kasua desbideratua denean, komunikazio gailuak inplementatuko dira lurralde bakoitzeko JEZ eta organo judizial, zein fiskaltza ordezkariaren artean, prozesua hasi baina lehen gaia lantzeko (2019: 34. Or.).

Organo eta denboraren aldetik, ez dago desbideratzeko mugaketarik prozesuan zehar, Emakume Aurkako Indarkeria Auzitegien kasuak izan ezik. Ministerio Fiskalari



ere ez zaio eskuduntza bazterten eta esan bezala, denbora aldetik ez da mugatzen une prozesalki, aurreko irizpideak betetzen badira onartzen da (2019: 34. Or.).

Desbideratzea onartzeko, hastapenak garrantzia du. Organo judiziala, ofizioz edo alderdiek eskatuta, arrazoitutako erabakia eman beharko du. Ministerio Fiskalak ere badu aukera hori delitu mota batzuetarako (MFEO 5.2. art.). MF eskaera egiten ez duen kasuetan, desbideratzeaz abisua eman beharko zaio eta bat ez datorrela esaten badu, arriskuren batengatik, edo ikertuak ekintzak onartzen ez dituen kasuetan, ez da desbideratzea onartuko.

Organoak ze kasu desbideratuko duen erabakitzean JEZri erresoluzio argudiaturen bitartez abisatuko zaio, alderdiei batera, eta zerbitzuaren informazioa, borondatearen irizpidea eta doakotasuna helaraziko zaie, JEZ beraiekin kontaktuan jarriko direla azalduz. Prozedura mota egokiena, gai eta alderdien helbide eta telefono zenbakiak identifikatu beharko dituzte orain. Datuen babesa dela eta, Justizia Administrazioako letradunek lantzen dute hau (2019: 35. Or.).

Epeen aldetik, prozesu errestitatiboa hasi denetik ezingo du izaera orokorrean hiru hilabete baino luzeagoa izan, delitu arinetan izan ezik non bi hilabeteko muga ezartzen den, nahiz eta organo judizial eta Lan eta Justizia sailak epea hilabete batez luzatu dezaketen. Prozesuaren emaitza Ministerio Fiskalari helaraziko zaio akordioa juridiko prozesalki kudeatzeko.

Orokorrean eta prozesu bakoitzaren bereiztasuna alde utziz izan prozedimendu penal edo une prozesala, programek lau fase orokor jarraitzen dituzte (2019. 37. Or.):

1) Desbideratze eta informatzea:

Azaldu bezala, desbideratzea organo judizial edo fiskaltzak gauzatzekoan, alderdiei edo ordezkari legalei abisatu behar zaie, gutun edo dei bitartez. JEZ behar duen dokumentazio lortzerakoan, alderdiekin kontaktuan jarriko da lehen elkarrizketa informatzaile bat gauzatzeko, nahi dutenaren konpainiaz. Bi alderdiek prozesu errestitatiboan parte hartzeko adostasuna adierazi dezakete eta baimenezko dokumentua sinatuko dute.

2) Prestaketa:

Pertsona fisiko parte hartzaileek prozesua hasteko adostasuna ematean, lan informatiboa gauzatu beharko da. Bideratzaileak ekintzen pertzepzioa ulertuko du, emozio, beldur, jarrera eta beste alderdiarekiko aukerazko ondorioak, hala nola, interesa, beharra edo prozesua oinperatzeko gaitasuna ongi prestatzeko. Hirugarren laguntzaileak, justiziarekin biktimak duen egoera zehatza ezagutu behar du eta prozesuan duen eragina, hala nola, delituaren egitateen ardura ze mailaraino hartu den edo horren ondorioak. Behar erreparatiboak ere jakin beharko ditu, bereziki erreparazio behar eta interesak zeintzuk diren (2019: 38. Or.). Elkartzearen balio gizatiarra eta alderdietako hitzen balioa azpimarratuko da. Bideratzailea alderdien xedapen izango da prozesuarekin dagoen edozein kezka edo zalantza aholkatzeko, beti ere saio informatzaileen eta prestatzaileen konfidentzialtasuna mantenduz.

### 3) Prozesu erreparatiboa hautatzea:

Lortutako datuekin, bideratzaileak alderdi edo parte hartzaileen baimenarekin, prozesua baloratuko du (bitartekaritza, zirkulu, konferentziak, etab.) beharretara hobekien estutzen dena erabakiz. Behin hautatuta, auzitegi urgazleari eta Ministerio Fiskalari informatuko die arrazoiak emanez eta bereziki alderdiei kaltetuko ez diela garbi eduki beharko da.

Aurpegiko topaketetan, behar diren saioak gauzatu daitezke, kasuaren zailtasunaren arabera, izan egoera emozionala edo biktima kopuruengatik. Sei saio baino gehiago ez gauzatzea bilatzen da berez, non tentsio mailak kontrolatzen saiatuko diren. Gertatzen dena lengoai erraza eta argiarekin azaltzen saiatu beharko da bideratzailea, guztien mesedetan. Modalitate gomendatuena da.

Zeharkako topaketetan, bideratzaileak elkar eragin beharko du aldi berean edo grabaketen bitartez egoera eta beharren arabera. Alderdien artean ezingo da inongo komunikaziorik eman babesteko ordena edo urruntze neurria indarrean egoterakoan. Elkar eragite komunikatibo hobea lortzeko zeharkako komunikazio bideen baitan jarduten da (gutuna, grabaketak, etab.) (2019: 40. Or.).

### 4) Emaidza erreparatiboa:

Akordioa lortzen den kasuetan, interes eta beharretan oinarritutako erabaki komuna hartzen da eta erreparazio akta deituriko dokumentua bete beharko da, non erreparazio plana inplizituko den. Akordioa organo judicial eta Ministerio Fiskalari helaraziko zaie, itxiera ohar batekin. Ezinezkoa ez den kasuetan, biktimek idatzi

pertsonal edo agertze bitartez, organo judizialari lortutako erreparazio maila adieraziko zaio, alderdi eta organoak erantzukizun penala determinatzerakoan kontuan hartu dezaten.

Akordiorik lortzen ez den kasuetan, JEZ auzitegi eta Ministerio Fiskalari egoeraz jakinaraziko die ohar informatzailearen bitartez, konfidentziasuna errespetatuz. Kasu hauetan, epaiketa gauzatzerakoan, praktika errestitutiboan gertaturiko ezerk ez du froga gisa baliorik edukiko, eta parte hartu duen bideratzaileak ezingo da prozesu judizialean testigu gisa jardun.

Beraz, nahiko argi azaltzen da jarraitzen diren erregelak zeintzuk diren, helburuak eta babestu nahi diren interesak zeintzuk diren. Batzuetan, akordioa ematen den kasuetan, organo judizialak edo Ministerio Fiskalak eskatuta, JEZ erreparazioa jarraitu beharko du eta prozedimenduaren egoeraz edo betetzeaz informatu beharko da. Gainera, epaileak erreparazio planean erantzukizun zibila gehitu dezake.

Erreparazioa nahikoa dela ulertzen da alderdiek hala adostekoan, elkarriketa topaketaren garapena, itzulpena, erreparazioa, indemnizazioa, zerbitzuen prestazioa, tratamendua, barkamena eskaera, ekintzen aitortpena eta bestelakoak ematen direnean. Epaileak apropos kontsideratu behar du hartutako erabakia, Ministerio Fiskal, abokatu eta alderdiekin batera. Era berean, auzitegiak baloratuko du JEZri ahozko bista noiz izango den informatzeaz, aurretik erreparazio ekintzak zehazteko eta beharrezkoa diren ohar informatzaile egokiak gauzatzeko (2019: 42. Or.). Organo judizialak du ere JEZri desbideraturiko kasuen amaierazko ebazpenaz informatzeko aukera, prozesuaren bukaeran informazio osatu eta eraginkorragoa izan dezaten.

### -2.2.3) Datu estatistiko esanguratsuenak:

Protokoloaren pausuak jarraituz EAEn organo judizialek Justizia Errestitutibora desbideratu dituen kasuen eboluzioa aztertuko da. Lehenengo probintzien praktika alderatuko da, ondoren estatu mailan paradigmari ematen zaion erabilgarritasuna, eta azkenik Europako beste herrialdeen praktikarekin alderatzeari ekingo zaio.

Jarraian agertzen den taulan, Euskadiko lurraldean 2007tik JEZ desbideratu diren kasuen kopurua adierazten da (Protokoloa, 2019: 18 eta hurrengoak Or.):

1. Taula: JEZ desbideraturiko kasuak Euskadiko probintzietan.

	<b>Bizkaia</b>	<b>Gipuzkoa</b>	<b>Araba</b>	<b>Euskadi</b>
<b>2007</b>	28	0	7	35
<b>2008</b>	209	0	139	348
<b>2009</b> <sup>7</sup>	519	213	218	950
<b>2010</b>	521	284	196	1001
<b>2011</b>	472	316	277	1065
<b>2012</b>	698	213	351	1262
<b>2013</b>	918	360	341	1619
<b>2014</b>	935	348	274	1557
<b>2015</b>	927	305	211	1443
<b>2016</b>	785	190	256	1231
<b>2017</b>	816	169	188	1173
<b>Total</b>	6828	2398	2458	11684

Iturria: Protokoloa 2019, 18. Or.

Datu hauetan delituzko tipoak, larritasuna eta beste zehaztasun oro alde batera utzi dira. Ikusten denez, 2010 arte desbideratutako kasuen eboluzioa gorakorra da, 2009an zerbitzua Gipuzkoa eta Bilbora zabaldu zen eta horrek atzerapauso arina suposatu zuen. 2011-2014 bitartean, Bizkaian gorako joera eman zen, hurrengoetan pixkanakako jaitsiera 2017. urtea arte. Gipuzkoak, epe berdinetan oszilazioa eman zen 2014tik jaitsiera sufrituz 2017 arte. Araban 2011 eta 2012 artean igoera eman zen jarraian izan zuen jaitsierarekin batera. Eboluzio kuantitatiboa hiru kokalekuetan beraz ez da uniforme.

Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrean 2015ean argitaratutako datuek bitartekaritzara estatuan 3.804 kasu desbideratu zirela jasotzen du (2014. urtean baina 410 kasu gutxiago, jaitsieraren adierazle). Horietatik 1.881 kasuetan lortu zen bitartekaritza gauzatzea. Hala ere, urte horretako datuak Euskadikoekin alderatuz, 1.443 kasu gure herrian desbideratu ziren, BJKO jasotako datuen %40. Datu hauek positiboki baloratu behar zaizkio gure herriari zerbitzuaren inplementazio erlatiboarengatik (2019: 19. Or.).

<sup>7</sup> Zerbitzua Bilbao eta Donostiara zabaldu zen.

2015. urtetik 2017ra larritasunaren arabera desbideratutako kasuen datuak eskuragarri daude Protokoloa den iturri ofizialean. Zerbitzuak 2007an hasten dira delituetan (%60) falta edo egungo delitu arinetan (%40) baino arreta gehiago lantzen, nahiz ez da gehiagotan errepikatu. 2010ean delitu desbideratuen puntu gorena ematen da eta geroztik zenbakiak behera egin zuen. 2015 urteko erreformatik aurrera, delitu larrietan desbideratze eskasa nabari zen, delitu ez hain larrietan igoera eta delitu arinetan jaitsiera. 2015-2017 bitartean delitu larriak ez ziren desbideratutako kasuen %1 gainditzen, delitu ez hain larriek %15 eta delitu arinek %83 zuen bitartean. Tamalez, ez da 2018 eta 2019 urteko daturik eskaintzen aldaketarik eman den ondorioztatzeko.

Adostu diren kasuei buruz, 2016an %92 izan ziren eta 2017an %79. 2007tik 2018ra, organo judizialek desbideratutako kasuetatik prozesu errestitutiboak %60-80tan gauzatu da. Delituzko tipoei dagokionez, urte zehatzik aipatzen ez denez, JEZ urte hauetan jasotako kasuen sailkapena eskaintzen da (2019: 20-22. Or.).

Delitu larrietan, lesio delituak desbideratutako kasuen %60 ziren, maula %15, familia barruko indarkeria %10, atxiloketa ilegala %4, bidegabeko jabetzea %4 eta arma, munizio edo lehergaien edukitzea %4.

Delitu ez hain larrietan, lesio delituak kasuen %30-40 izan dira, indarkeriazko lapurreta %10-15, familiarteko indarkeria lesio delituak %10-15, kalteak %10-15, pentsioak ez ordaintzea %5-10, mehatxuak %5-10, hertsapen eta ebasketa %5-10, bidegabeko jabetzea %5-10 eta iruzur delituak %5-10.

Lehen faltak ziren delitu arinetan, lesioak kasuen %20-30 izan ziren, mehatxuak %15-20, familiako beharrak ez betetzea %15-20, irainak %10-15, hertsapena %10-15 eta kalteak %5-10.

Desbideratze datuak hauek izanik, prozesu errestitutiboak aplikatu ostean prozesu judizialean izan duen eragina edo eman diren emaitzak ahalbidetzen dira, informazioa bideratzaileen epai judizialeetatik eratorriz: zerbitzua zegoen eta faltak erregistratzen ziren garaietan zigor penalaren gabezia %100 izan zen; delitu arinen %80 zigor penala azkendu edo kanpo gelditu da eta %20 ezarri zaio zigorraildirik; delitu ez hain larrietan %70 izan da zigorretik azkendua eta %30 penalki santzioa jaso du; delitu larrien kopurua oso baxua izan arren, kasuen %45 lortu da erantzukizun edo zigor penala azkentzea, %55 jaso duen bitartean.

Beraz, desbideratutako kasuen ia erdian programa errestitutiboaren praktika gauzatzeko eraginkorra izan da, adostasun batera heldu direla eta zigor penala aplikatzea

ez delako beharrezkoa kontsideratu, bake prozesuak bultzatu eta zigorraren jurisdikzioa eztituz.

Bitartekaritza taldeen esku-hartze denboraren aldetik, hilabete bat baino gutxiago kasuen %40-50 iraun zuen, hilabete bat eta bi artean %25-35, eta hiru-sei hilabete bitartean kasuen %10. Denboraren aldetik orokorrean prozesuak azkarrak direla kontsideratu daiteke.

Azkenik, akordio eta emaitza errestauratiboen izadia pertsona parte hartzaileen aldetik azken 10 urteetan honela nagusitu da:

-Legezko-prozesala %35: salatu duen alderdiaren uko egitea akzio legal eta penal-zibilei.

-Etika %30: salatutako egitateen erantzukizuna aitortzea, barkamena onartzea edo hitzezko hausnarketak jarrera desegokia eta sortutako kalteen inguruan.

-Portaerazkoa %20: jarrera aldaketa bereziki sortutako gatazkari lotutakoak.

-Material-ekonomikoa %8: diru erreparazioa edo ondarezkoa.

-Osasunezkoa %1: tratamendua jasoko delaren konpromisoa hartu da osasun mentala edo substantzia toxikoen kontsumoa dela eta.

-Gizartekoa %1: gizarteko interbentzioa jasoko delaren konpromisoa.

Hartutako konpromisoen betetzea %65 eman da guztiz eta %15 partzialki. Azpimarratzekoa da akordio errestauratiboen sormenezko alderdia adostasun ekonomikoak bigarren lekuan uzten duela, eta erreparazio sinboliko, moral (barkamena edo kontziliazioa) edo konpromiso eta jarrera aldaketek indar gehiago dutela.

Datuak aztertuz hainbat ondorio atera daitezke. Zifra errespetagarria eman da EAEn zerbitzu hauekiko azken hamarkadan (11.684 kasu). Organo judizialen desbideratzea oso ezberdina da, auzitegi batzuk ohikotasun eta normaltasunez pasatzen dituztelako kasuak eta beste batzuk inoiz eta bestetan epaile aldetaren arabera dira kasuen desbideraketak. Zigorraren justizia sisteman geroz Justizia Errestauratiboa onartzen doala egiaztatu daiteke baikortasunez. Hala ere, bideratzaile edo bitartekarien pertzepzioa oraindik prozesuekiko eta dituen onurekiko ez ezagutza eta nahastearena dela da. Era berean, delitu larrien erabilpen baxuak, delitu arinen erabilpenarekin alderatuz, ez ezagutza, gutxiespena edo mesfidantza igarri daiteke organo judizialek prozesuen onurekiko, edo prozesalki akordioa ahokatzeko zailtasuna dutela.

Paradigma sisteman ezarri den arren, oraindik prozesalki helburua zigortzailea izaten da, baina errespetua, komunikazioa eta elkarrizketaren bitartez egoera aldatzea lortzeari ekin beharko zaio. Gainera, ehuneko altuak desbideratutako kasuetan akordiora iristea lortu du, eta adostutakoaren ehuneko altua bete da. Hala ere, datozen urteetan alferkeria burokratikoak, zigor sistemaren eta dituen zigortze logiken berezitasuna eta beste erronka prozesalei ekin beharko zaie programa errestitutiboaren presentziak gora egitea lortzeko.

Aipatu bezala, Espainiako beste Autonomia Erkidegoekin alderatuz, Euskadi paradigmatikaren jazarpenaren aurreratuen doa, Kataluniarekin batera Estatuan JEZ desbideratu diren kasuen ia erdiaren partaide izan delako. BJKO eskaintzen dituen datu eguneratuetan ikusi daitekeenez, ez du JEZ datu zehatzik ematen.

Hala ere, nahiz eta Justizia Errestitutiboa bitartekaritza penala baina gehiago den, 2019 urtean praktika errestitutiboko zantzua duen datuak eskaintzen ditu<sup>8</sup>. Kataluniak 77 kasu desbideratu zituen eta EAEk 52, adierazleenak izanik. Asturias, Aragoi, Balentzia eta Gaztela eta Leonen ez bezala, Estatuko beste erkidegoetan ez da praktika ez eta kasuen zantzurik igartzen. Bista atzera botatzen bada, praktikak oso antzeko mantendu dira, nabarmendu beharreko erkidegoetan desberdintasunen bat egonik, baina Euskadi da denbora eta kopuruan gailendu beharrekoena judizio barneko bitartekaritza, desbideratutako kasuen ia %50 hemen izan delako. Euskadik estatuko populazio osoaren %5 osatzen duela kontuan hartuta, datu hauek oso adierazgarriak dira estatuko praktikarekiko. Gainera, BJKO eskaintako datu estatistikoetan, ez da delituen tipo ez eta larritasunaren inguruan azalpenik ematen.

Honetaz gain, orokorrean ez da JEZ inguruko datu eta aldaerarik eskaintzen, judizioetatik kanpoko bitarteko laguntzarik, ez eta bitartekaritza penala ez den beste praktiken daturik eskaintzen. Justizia Errestitutiboa kooperazio zerbitzu bezala agertzen da Eusko Jaurlaritzaren web-orrialdean, dituen abantailak eta zerbitzuak azaltzeko; baina Estatuko BJKO web-orrian ez zaio zerbitzuari zuzeneko saila eskaintzen.

Gure herrialdeak Espainian antzemate nabarmena du, baina duen praktika eta funtzionamendua, Europako beste herrialdeekin alderatu beharko da errealitatea era orokorrean ulertzeko. Europako Iparraldean dauden estatuak aitzindari dira, bereziki Norvegia, Estatu Batuek bezala 70. hamarkadatik aurrera esperientziak erregistratu

---

<sup>8</sup> Hemendik eskuratua: <http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Estadistica-Judicial/Estadistica-por-temas/Medios-alternativos-de-resolucion-de-conflictos/Mediacion-Intrajudicial/>

direlako. Erresuma Batuan ere programa errestituatiboaren inplementazioa nabarmena da; Europa erdialdea diren Belgika eta Herbeheretan, azken denboraldian garapen aipagarria eman da, emaitza positiboak eman dituena; azkenik, Europako hegoaldeko herrietan, paradigmaren programei bidea irekitzean erresistentzia nabaritu da, araudian garapen ia hutsa eta asko jota erregulazioan delitu arinak sartu dituzte (IGARTUA, 2017: 61. Or.). Espainia hegoaldeko estatu horietan kokatzen da, araudian Justizia Errestituatiboaren kutsuak antzeman daitezkeen arren, ez dituelako paradigmatik eskaintzen dituen bideak nabarmentzen ez eta duen eraginkortasunean konfiantza erakusten.

Bilakaera eta inplementazio ezberdinen azalpena, araudian legezkontasun eta aukera printzipioei emandako indar ezberdina izan daiteke. Herrialde kontinentaletan legezkontasun printzipioak du indarra eta anglosaxoietan ordea aukera printzipioak. Espainian (DOMINGO, 2012: 80. Or.) legezkontasun printzipioak duen garrantzia muga da, honen bitartez partikularren eskubideak estatuak subrogatu eta delitu guztien jarraitze eta ebazpena gauzatzeko konpromisoa hartzen du, larritasuna edozein dela ere.

Babestu nahi diren balioak berdintasuna, botere banaketa eta konponbidea ahozko epai publiko baten baitan izatea diren arren, ekintzen errealitateak gehiago exijitzen du, izan ere, delitu guztietan antzeko prozesu eta esku sartzea izateak, ez du emaitza eraginkorrik eskaintzen bereziki biktima, delitu egile eta komunitateak pairatzen dituen ondorioetan. Ez dira biktima edo beste alderdien beharretan zentratzen ezta behar duten erreparazio edo justizia egikaritzeko borondatean arreta jartzen. Gainera, ez da oso zentzuduna politiko eta ekonomikoki botere judizialak kasu oro intentsitate berdinarekin jarraitzeko zama hartzea.

Honen aurrean, aukeraren printzipioa helburu eta ondorio zein sistemaren eraginkortasunera doa lotuta, estatuaren esku sartze edo interbentzioa minimoa izatea bilatzen duelako, aukerek ahalbidetzen duenean (DOMINGO, 2012: 80. Or.). Horrek eskubideei orientaturiko Zigor Zuzenbideak berdintasun printzipioa kolokan jartzeko arriskua du; baina legezkontasun printzipioak egun gertatzen den gehiegizko judizializazioa eta organo judizialen pilaketa eragiten ditu.

Justizia Errestituatiboaren praktika bi alderdien muga kokatu daiteke, bereziki aukera printzipioarekin. Azken finean, programa errestituatiboak legezkontasun printzipiora egokitzen dira legez ezarritako mekanismoen bidez lortutako akordioa errestituatiboa prozesalki egokitzeko eta zigorraren etendura probisional edo definitiboa ahalbidetzeko, kasu eta akordioa egokiak direnetan. Gainera, organoen lan karga arindu



eta justizia bizkortzea laguntzen du, beraz, bide hobereana izan daiteke akordioarekin kausa artxibatu eta prozesua bukatutzat emanez, nahiz eta kalteen erreparazioa betetzen dela jarraitu beharko den.

Oraingoz, delitu pribatuan eskaintzen da alderdiek prozesua bukatzeko aukera zuzena. Prozedura Kriminalaren Legearen 963.1. artikuluan berria (maiatzaren 30eko 1/2015 Lege Organikoan adostua) instrukzio epaileak, Fiskaltzak eskatuta, prozedura largetsi eta eginbideak artxibatzeko aukera du: delitu arin edo larritasun gutxikoetan egitateen izaera, inguruabarrak eta egilearen arabera; edo egitateak jarraitzeko interes publiko garrantzitsurik ez egotean. Beste kasuetan, auzitegien betiko martxari bide ezberdina eskaintzen dion JEZ onartzeko epaile eta Fiskaltzaren onarpena beharko da. Baina aipatutakoa kontuan hartzen bada, Espainiar araudiak aukera printzipioari botere gehiago eman behar lioke, Ministerio fiskalari emanez ikerketaren norabidea eta kausak artxibatzeko programa errestitutiboak emaitza arrakastatsua izan dituen kasuetan (DOMINGO, 2012: 81. Or.).

Europako Iparraldeko estatuetan, Norvegia bere programen ezaugarriengatik aitzindaria da. Hasieran adingabeen justiziara mugatu zen arren, gerora helduen justizian txertatu zen. Europako estatu gehienetan, bitartekaritza eta hitzaldiak zerbitzu zabaldua izatek urruti gelditzen dira, Europar Kontseiluak Gomendioetan sustagarri zuena. Duela gutxi arteko bitartekaritza penalaren proiektu europarrek ez zuten barne erlaziorik, eta 2000. urtean Justizia Errestitutiboaren Foro Europarra <sup>9</sup> (EFRJ) sortu zen, egoera leundu nahian. Irabazi gabeko organizazioa da eta egoitza Belgikan du. Justizia Errestitutiboarekin kontaktua duten operadore juridiko eta profesionalek osatzen dute praktika eta ikerketa, gobernuko organizazio eta estatu europarren kolaborazioarekin batera. Helburu nagusia Europan Justizia Errestitutiboak alderdi penalean izan dezakeen eragina ezarri eta garatzean laguntza ematea da.

Bitxia da egin zuten azterketa bat, non hitzaldi edo konferentzia gauzatzea bitartekaritza baina eraginkorragoa dela ikusi zen. Arrazoitzeko VANFRAECHEMek (2010: 268. Or.) garapen teorikoa eta gero sortu zela aipatzen du, abordatze enpirikoaren bitartez sortu zela.

EFRJrekin batera, eremu penalean bakarrik zentratzen ez den Bitartekaritza Magistratuen Talde Europarra (GEMME) dago, magistratu eta fiskalez osatua, eta helburua bitartekaritza sistemen ikerketa eta esperientzien zabalkundea dira. Europako

---

<sup>9</sup> <https://www.euforumrj.org/en>

estatu gehienek berezko sekzioa dute, hala nola Espainiak, eta estatuen bitartekaritza motor printzipala osatzen eta praktikan jartzen du (IGARTUA, 2017: 63. Or.).

Dena den, datu kuantitatiboen falta dago praktika errestitutiboen aldaera egin ahal izateko, foro eta sarean. Estatuon nondik norakoa aipatzen da, eta helburu ezberdin duten ikerketa ezberdinen eaginean daudela.

Ondorioztatzen denez, Espainia paradigma bere sisteman ezartzea kostata dabilen estatuetakoa bat da, legedian justizia errestitutibo terminoa eta dituen praktika ezberdinen falta dagoelako, Biktimaren Estatutua salbuespena izanik. Era berean, Euskadik Espainiarekiko egoera ezberdina duela garbia da, Gomendio eta Zuzentaruak indarrean eta martxan jarri dituelako aurreko hamarkadatik eta ikerketa zein berritzean, bai eta erabilpenaren sustapenean diharduelako gardentasunez.

### -3) Aldeko diskurtso teorikoak vs. Erabilpen baxua istilu-gatazka konponketetan:

Orain arte, Justizia Errestitutiboaren jatorria, dituen abantailak aztertu, zein erabilaren errentagarritasuna landu da. Hala ere, erabilpena (bereziki delitu arinak ez direnekin) eta hedapena baxua dela nabaria da, eta alde esandako guztiaren ondoren, azalpena zein den ulertzeari ekingo zaio.

JEZ profesionalek, Protokoloaren atal batean zerbitzuari eginiko balorazioa argitaratzen da. Azaldu bezala, funtzionamendu Protokoloak aktibitatea erregulatzen du, prozesu judizialen barruko nahitaezko gailua da paradigma prozesu judizialean era erregulatu eta ordenatuan gauzatzeko. Fiskaltza eta epailetzarekin adostu zen dokumentua eta prozesu errestitutiboak, berme, jardute erregelak, gida eta pertsonen babesa prozesu judizialean ahalbidetzen ditu (Protokoloa, 2019: 24. Or.). Berdintasun printzipioa errazten duela aipatzen dute ere.

Dena den, atal batean profesionalek kontra egiten dute, dokumentuak zenbait egoera mugatzen dituelako batzuetan, laneko malgutasun eta sormenean bereziki. Organo judizialen aldeko ezagutza ezberdina hautematen dute ere, baina orokorrean, bideratzaileak diren bitartekari edo hirugarren pertsonen laguntza garrantzitsua eskaintzen dio Protokoloak, lan antolatua oinarritzko metodo gisa (2019: 24. Or.).

Zerbitzuko profesionalak, ondorengo zailtasunak antzeman eta azaltzen dituzte paradigmen praktika sustatzen jarrai dezan:

-Borondatea galdatzeak berdintasun printzipioa eta segurtasun judiziala urratu dezake.

-Bitartekaritzara desbideraturiko kasu batzuk bertan behera uzten dira hautemate subjektiboengatik, operadore juridikoek ontzat eman behar dutelako, eta bereziki epaile zein fiskalek protokoloa interpretatzeko moduak ardua sortzen die bideratzaileei. Desbideratzeko irizpide subjektibo eta urriak eragin negatiboa du erabilpenean beraz.

Era berean, auzitegiarentzat arazoa diren kasuak desbideratzen dira batzuetan nahiz eta agian kasuan ez izan aukera egokiena. Ondorioztatzen denez, zerbitzuak egunerokotasuneko funtzionamendutik urruti gelditzen delako eta osatugabea dela helarazten duelako segurtasun eza transmititzen du. Gainera, beharrezko irizpideko araua ez izatean, gutxieneko bermeen falta irudikatzen du, orientagarria denez bakoitzak nahi duena egitera bideratzen duela dirudielako. Azken finean, operadore juridikoek edo parte hartzaileek duten ez ezagutzak, eta zerbitzuaren lana araudira lotuta doala ez ulertzeak, mesfidantza sentimendua handitzen du, erabilgarritasuna zalantzan ipiniz.

-Bitartekari edota bideratzaileei erreferentzia egiten dien estatutuaren falta dago, osaketa, esperientzia, beharrak, eskubideak, funtzioak ez betetzearen ondorioak, etab. zehazteko. Egungo legegintzarekin eta egunerokotasunarekin osatuta ez dagoela irudikatzen duela azaltzen dute ere. Gainera, Protokoloak ez du erreferentzia prozesalpenalik, ez ditu bitartekaritza prozesu eta prozesu judizialaren mugak zehatz adierazten, ezta iraungitze edo etendura noiz ematen den aipatzen.

-Zerbitzuaren estatistiketan prozesu penalean adostasunak izan duen eragina jasotzen da (zigor onurak), eta auzitegi batzuek ez dute bukaera adierazten duen ebazpen judiziala errazten JEZra, ez eta onuren dokumenturik ematen.

-Bitartekariak administrazio lanetan pasatzen dute jardunaldiaren gehiengoa, horrek hartzen bai die denbora gehiena: kontaktuan jarri, informazioa lortu, hitz ordua zehaztu, etab. Hala ere, alderdiekin programa errestauratiboetan jarduteko eskaintzen den denbora tarte batuetan ez da nahikoa, urgentziaz jardutera behartzen dielako pausuak osotasunean bete ezinik.

Zailtasun edo huts egite hauen aurrean eta praktiken sustapenean oinarrituz, bitartekari eta bideratzaileen hainbat proposamen azaltzen dira (2019: 27. Or.):

-Operadore juridikoen aldetik programa errestitutiboekiko kontzientzia handitu eta bitartekaritza bezalako praktiken onuren dibulgazioa landuz praktika handitu daiteke. Era berean, desbideratzea epaileen baiezkoarekin onartzea galdatzen dute, Fiskaltzari botere hori eman gabe. Operadore juridikoen adostasun penala bereizgarritzen duen mugak garbi zehaztea desbideratze kasuen egokitasuna handiagotu dezake. Baina horretarako, garrantzitsua da Justizia Errestitutiboaren kultura juridikoaz jakitea falta dela kontziente izatea eta operadore juridikoei sortzen zaizkien aurreiritzi okerrak daudela alde batera ez uztea, dituen eraginengatik: programekiko pertzepzio eta praktikan.

-Bitartekari edo bideratzaileen osotasun profesionalaren gutxieneko estandarrak zehaztu eta landu beharko dituzten kasuen hautapena egitea eraginkorragoa izan daitekeela aipatzen da. Baina Protokoloan prozesu errestitutiboen helburuak argi jasotzea falta dela aipatzen dute ere, partaide zein bideratzaileak zehazki horretan inplikatzeko. Gainera, gida Euskadin ematen den aktibitatearekin erlazionaturiko Profesionalen Ikastetxera helarazi behar dela diote ere, kideen artean zabaldu dezaten, bereziki bitartekaritza elkargo batzordeari, ezagutza eta praktika hobetzea ahalbidetzeko.

-Protokoloaren berrikuspena landu behar dela aipatzen da, Fiskaltzarekin egungo kontraesanak zuzentzeko: duen Justizia Errestitutiboaren aldeko planteamendu teorikoa eta errealitateko praktiken ez aldekatasuna orekatzea lortzeko.

-Eragile inplikatuak urtero kasuen jarraipen berrikustea gauzatzea, eraginkortasunari lotuta komenigarria izan daitekeela proposatzen da.

-Bitartekaritza informazio puntuak sortu eta elkarrizketa informatzailetan aipamen laburra eskaintzeak praktikaren nondik norakoei, denbora eta programei begira errentagarriagoa da. Azalpen eta abisuarekin, prozesuaren etengabeko tramitazioak programa errestitutiboan ez eragitea lortu daitekeelako.

-Biktimen Arreta Zerbitzua, epaile eta Fiskaltzarekin, JEZ bideratzaile, funtzionario eta gizarteko zerbitzuek jarraipen bilerak gauzatzea 6 hilabete oro, kasu eta paradigmaren erabilpenak kontrolatzeko.

-Protokoloa urtero berrikustea positiboa izan daitekeela uste dute, zerbitzuaren funtzionamendurako eta araudiarekiko egokia den ziurtatzeko, behar duen alderdi gizatiarra garbia dela ziurtatzearekin batera. Bertan, eskaintzen den informazioa kuantitatiboa izateaz gain, kualitatiboa izateak pertzepzio eta erabilpenean eragina izan dezakeela defendatzen dute, bereziki partaideen sentimenduak jasotzek. Azkenik, baliabide ekonomikoak igotzek, pertsonalaren osaketa eta zerbitzuaren ahalbideetan inbertitzeko.

Laburbilduz, egun programa eta praktikak dituen huts egite batzuk jakinak dira, prozesuetan parte hartzen duten bideratzaileen aldetik hobetu beharko diren puntuak Protokoloan azaltzen direlako. Gehien salatzen dena operadore juridiko zein orokorrean sentitzen den ez ezagutza, eta operadore juridikoen esku sartzeak izan ditzaken zailtasun edo eragin negatiboa da. Hala ere, egoerari kontra egin eta JEZ zein Justizia Errestauratiboaren paradigmaren aldeko ideiak gora egiten jarraitzea lortzeko, ematen dituzten proposamenen bitartez lortu daiteke. Azkenean lortu beharrekoa gizartean paradigma errestauratiboaren hedapena da, bizikidetasun esparru guztietan, ondorioz zigor-arloa barne egonik.

Protokoloan zerbitzuko operadorek kritikatu eta proposatutakoak alde batera utzita, kontraesankorra da Estatuko Fiskaltza Nagusiak Justizia Errestauratiboaren inguruan duen diskurtso eta praktika. Protokoloan bideratzaileek salatzen duten bezala, prozesuak JEZ desbideratzea galarazten duelako ongi iruditzen ez zaion kasuetan, baina alderdien aldetik nahia eta borondatea egoteak nahikoa izan beharko luke. Bitxia da ere, orain arte estatu mailan praktikari eman zaion erabilpen urria edo eskasa, BJKO datuetatik ondorioztatuz, Euskadin hain emaitza eraginkorrak izan dituela jakinda.

Ohituak gaude, betidanik, arazoak hirugarren esku sartzaile batek ezartzen duen zigorraren baitan zuzendu edo konpontzea, elkarrizketaren kultura kanpo geldituz. Honela, gatazken konponketa osasungarrirako beharrezkoak diren interes eta oinarrizko balioak alde batera uzten dira, alderdi kaltetu eta kaltea sortu duenarenak. Gainera, komunitateak kaltea pairatzen duela eta konponbiderako parte hartze gisa eraginkorra dela ahaztua dugu. Ez gaude arazoak elkarrizketa bidez konpontzera trebatu ezta ohituak eta horrek paradigmari ekarpena zein ongi etorri ahaltsua egitea galarazi du, Norvegia eta bestelako Ipar Europako estatuetan ez bezala.

Ikuspegi errestitatibo berri honek eskaintzen duen potentzial guztia ikustea neketsua izan den arren, aldeko diskurtso teoriko eta oihartzuna gero eta indartsuagoa izaten hasi da. Praktikak Euskadin izan dituen emaitzak ikusita, Justizia batzordeko Senatuan 2020ko ekainaren 2an, Juan Carlos Campo den Justizia ministroak <sup>10</sup> praktika handitzearen aldeko diskurtsoa aurkeztu zuen. Espainian aldizkatze gailuen alde egin behar dela eta gatazken konponketarako bitartekaritza eta kontziliazioa, bai eta Justizia Errestitatiboa zigor esparruan laguntza eztabaidaezina eskaintzen dutela ziurtatu zuen.

Prozesu judizialeatik kanpo arazoen konponketak sustatzeko helburua erakutsi zuen Camposek, prozesuen kostu eta iraupena laburtzen duelako Justizia Errestitatiboko Zerbitzuak. Gainera, jakina denez, alderdi emozionala gehiago lantzea ahalbidetzen dute ere akordioen iraunkortasun altuaren bermearekin, datuetan oinarrituz. Esan zuenez, Justizia Ministerioaren lan ardaztuenetako bat gizarte heldu bateko gailuak eta erabilpen modu hoberenak aurkitzea, bai eta epaile, fiskal eta letradunen aldetik proposamenak lekukotzea da, elkarrizketa bidezko programa errestitatiboak diren bezala. Onartu zuenez, aipaturikoak ez dira Estatuan finkatzea lortu, nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoan araudi Europarrak aintzat hartu eta praktikara eramatea posible izan den, auzitegien lana arintzea lortzearekin batera.

Imanol Landa EAJko senatariak JEZ bidez zigor esparru eta sistemak arazoei konponbidea era aktiboan aurkitzeko delitu egile eta biktimari aukera ematen zaiela azpimarratu zion Senatuaren batzarraldian, eta kostuak gutxitzeaz gain, akordioen betetze maila altua dela, Euskadiko kasuetan oinarrituz, duen borondatezko izaeragatik.

Camposek, oraindik bide handia gelditzen dela eta asmoa gailu errestitatiboen aldeko apustuan jardutea dela aipatu zuen, Prozedura Kriminalaren Legea erreformatuz bai eta Europako zein Biktimaren Estatutuko jarraibideak betetzen. Amaieran, Euskadiko JEZ esperientziak aintzat hartu, ikertu eta estatuko sisteman ezarri behar direla aitortu zuen.

Erabilpena sustatzearen harira, beharrezko aipamena egin behar zaio Covid-19ri, alarma egoera dela eta auzitegien gelditzeak beti izan duten atzerapena bidertu duelako. Baina zigortze sistemarekiko aldizkatzea eskaintzen duen bide errestitatibo osagarriek,

---

<sup>10</sup> Galdera-erantzun bideoa:

[http://www.senado.es/web/actividadparlamentaria/actualidad/video/index.html?s=14\\_S000040\\_010\\_01&ag=208](http://www.senado.es/web/actividadparlamentaria/actualidad/video/index.html?s=14_S000040_010_01&ag=208)

era eraginkorrean egoera arintzen lagundu dezakete gehiengo kasuetan, nahiz eta organo judicial edo alderdiei (ez zehaztua) delitu larrietarako segurtasuna ematen ez diela dirudien.

Onartu da beraz, estatuko errealtatean praktika errestitutiboekiko lana eta bide luzea gelditzen dela, Justizia Ministerio eta Botere Judicialak bultzatu eta indartuz. Hala ere, hiritarrek baliabide honetaz kontzientzia edo jakituria izatea beharrezkoa da, zerbitzu publikoa eskaintzen den bideak eskuragarri daudela jakiterakoan arazoa auzitegietara heldu bezain laster irtenbide honi aukera ezberdina ematera animatzeko. Egunerokotasunean gaia ezaguna izateak, ondoren delitu baten aurrean erantzukizun eta erreparazioak behar bezala gauzatuko dituela ez mesfidatzeko balio dezake, ezagutzak alderdi positiboen jakituria eskaintzen duelako.

Justizia Errestitutiboaren programekiko mesfidantza elkarrizketaren kulturara gerturatuz gutxitzea lortu daiteke. Txikitatik, arazo baten kalteek sentitu arazten dizkigun emozioak ulertzen eta analizatzen ikasten badugu, egoera konpontzeko interes eta behar egokien arabera hartu daitekeelako erabaki edo konponbide egokiena. Zigor arloko gatazka batek ere denbora eta azterketa merezi du, bereziki pertsonala, eta biktima zein delitu egileari erabakian esku sartzea ahalbidetzean, komunitatea ere beharrezko izatean, prozesua eztitu eta gizatiartzen du, biktimaren interes eta beharrak lehenetsiz, bai eta kalte egilearen kolaborazioa eta gutxiengo eskubide zein beharrak errespetatuz. JEZ programetan alderdiek hartu beharreko konpromiso eta borondateak beraz, konponbidea lehuntzen du erreparazioa ahalbidetzen duen aldi berean. Teoria errestitutiboa hain onuragarria dela gizartean barneratzean, praktikak eta emaitzak gora egitea lortuko da sistematikoki, edo ideia hori ziurtatu nahi dut behintzat.

Ez gaude gatazka baten alderdi positiboak ikustera ohituak, ezta sorrarazten dizkigun sentimendu edo emozioak onartu, ulertu eta negatiboak izaterakoan aldatzeko ahalegina egiteko prestatuak. Nahiago dugu arazoa era azkar eta errazenean konpondu, goitik inposatua den erabakia onartuz. Berdin zaigu sufrimendua denboraz gainean eramanean eta erresilientzia positiboa zaigun ikaste prozesua alde batera uztea, arazo baten aurrean indartzea galaraziz. Erabaki errazena hartu ohi dugu: arazoa salatu eta zigorra ezartzearena.

Aipaturikoa Justizia Errestitutiboaren praktika ezberdinetara aplikatzen badugu, arazoen konponketaren ez ezagutzak izan dezakeen erabilgarritasun eta

eraginkortasunak pertzepzio oker edo hutsa izatera eramaten gaitu, txikitatik jarrera desegoki bat zigorraren baitan konpontzen delako, ondorioz dituen kalteekin batera. Gainera, elkarrizketa eta bakearen bitartez adosten diren prozesuak arazo leun edo arinetan ikusi ditugu asko jota, garrantzi ikusezineko egoeretan bakarrik erabili daitezkeelaren irudia transmitituz. Baina programa ezti bitartezko praktika, arazo larri eta biktimizazio maila altuetako kasuen aurrean, atentzioa eta esku sartzea alderdien behar eta interesetan ipiniz, bereziki erreparatu beharreko alderdi pasiboaren kalteetan, izan dezakeen emaitza positibo eta beteaz kontzientzia eta esperientzia izaterakoan, arazoen aurrean perspektiba ezberdina eskaini dezake. Ikuspuntu eta ezagutza hau gizartean orokortzen bada, praktika eta pertzepzio hobek nabarmen izango dira, bai eta JEZkiko konfiantza eta erabilgarritasuna, kasua arina edo larria izan arren.

Gizarte bihozbera erruen onarpenean eta kaltearen eragilearen gainean ez botatzean oinarritzen da. Borondate, elkarrizketa, erreparazio konpromiso eta damua edo dolua adierazi zein landuz, gorroto, indarkeria eta ordainketaren Zigor Zuzenbidearen eskemak hautsi eta urruti uztea lortu daiteke, Justizia Errestauratiboak defendatzen dituen balio eta interesak ohitura eta praktika bilakatzearekin bat.

DOMINGOren hitzetan, (2012: 105. Or.) Justizia Errestauratiboaren iturburu emozioak dira. Delituaren kalteak sufritzerakoan, sumindura, haserrea, apalkuntza edo sufritutako minaren mendekua sorrarazten duelako. Beraz, kalteen errudunarekiko mina edo nahi negatiboak sentituko dira, eta gizarteko bizitza baketsua bermatzeko oso arriskutsuak izan daitezke. Horregatik autoritatea den botere judizialak du kaltea erantzuteko aukera, talioaren legeak eragin dezaken kaosa ekiditeko. Ordain sari eredu jarraitzen den arren, printzipio eta proportzionaltasun baten barruan egon beharko da, heziketa helburua izanik oinarrian.

Honek gizaki dimentsio eta emozioak baztertzea eragin du, guztioi prozesu eta justizia kontzeptu berbera ezarriz. Gainera, ordainsari sistemaren bitartez, delituarekin dimentsio publikoan zentratu nahi da, ez arazo zein kalteen alderdi pertsonaletan (2012: 105. Or.).

Operadore juridikoek justizia egikaritzen dutela uste duten arren, alderdiak kaltetuak jarraitzen dute maiz, ez zaielako arazoa haien interes eta nahien arabera konpontzea ahalbidetzen. Baina ikusi da, paradigma berri honen baitan, eskusartzeko eskubidea eta borondateak akordioa lortu den kasuen emaitza edo soluzio eraginkor eta



askoz arinagoak lortzea ahalbidetzen dutela, injustizia sentimendu oro at utziz. Dimentsio emozionalak entzun eta jarraitzeak beraz, emaitza konstruktiboak ekartzen dituela garbi dago, bake prozesu eta ebazpenak ahalbidetuz, eta kasu bakoitzaren protagonista diren biktima, delitu egile eta komunitate beharren arabera jardunez.

Borondatea eta emozioak kanalizatzea norberari dagokion arren, arazoan konponketan mendekua baztertu eta ulermen zein erresilientzian fokatzean, kasu gehienak Justizia Errestauratiboaren programen baitan jardun daitezkelaren aldekoa naiz, era konstruktiboan biktimizazioa gutxituz. Praktika baxua herritarron ezagutzatik eratortzen dela ziur nago beraz, edo hori ziurtatu beharko dut, komunitatea osatzen dugun guztientzako bide baketsu eta biguna dugulako, elkar ulertze, errespetua, erreparazioa eta konpromisoa diren balioetan oinarritzen den bide osagarri hau.

Justizia aplikatzeko bide honetan kalte egileari ez zaio zigorraren bitarteko ordainketa inposatuko; kaltea ahal duen neurrian erreparatzea exijitzen zaio, eta sufrimendu edo kaltea urrituz alderdien arteko oreka erreparatzeko konpromisoa hartu beharko du, etorkizunera begira jarrera egokiak mantentzea ikasi eta biktimak erresilientzia positiboki garatu ahal izateko (DOMINGO, 2012: 106. Or.).

Azken finean, Justizia Errestauratiboa eta praktikak orokorrean, zigor arloan gain, ez du erreparatzeko bakarrik balio, harreman berriak eraiki edo berreraikitzen ditu ere aktiboki, beharrezkoa zaigun kapital soziala alegia. Ikaskuntza eta erabakiak era parte hartzailean hartzerakoan, borondatea eta alderdien rol aktiboaren baitan, motibazioa duen jarreraz hitz egiten dugu, eta Justizia Errestauratiboaren muina den emozioen erreakzioa eragingo da, ekintza kooperatiboa oraindik gehiago ahalbidetuz (JURADO, 2016: 13-14. Or.).

#### -4) Ikerketa Proiektua:

Ikerketa Justizia Errestauratiboan oinarritzen denez, orain arte paradigma eta duen markoa definitu behar izan da, lehen gerturatzea beharrezkoa delako ezagutza eremuan sartu eta ideiak ondo ulertzeko zein ikerketaren ondorioak azaldutakoarekin alderatzeko. Hipotesia oinarritzen den paradigmarekiko ez ezagutza orokorra, nire esperientzia pertsonalaren baitan erabaki nuen, inguruko inork ez zekielako Justizia

Errestauratiboa terminoa zer den eta ez nuelako defendatzen duen bake prozesuen inguruko inongo adimenik antzeman. Ez ezagutzak lotuta pertzepzio okerrera eramaten ote gaituela ere ikertu nahi dut, praktikak ezagutzaren eskutik handituko lirakekeela uste dudalako.

Paradigmaren orainean zehazten da ikerketa, egunerokotasunean. Biztanleria itua adin nagusikoa diren Euskaldunak izango dira, eta isuri edo sesgoak ere elementu haiek izango dira beraz. Biztanleriaren sektore handienez oinarritzen da, auzi penaletan paradigmak duen esku sartzearen ezagutza eta pertzepzioan bereziki, nahiz eta azaldu bezala, zigor arlotik kanpo ere korrantearen balioek erabilgarritasuna duten arazo ororen konponbidean. Lanak orokorrean, aurrerapen teorikoa eragingo du eskaintzen den informazio eta erabilitako hizkuntzarengatik; alde praktikotik JEZ erabilpen eta harekiko pertzepzio edo iritziaren informazioa eskainiko digu, praktikak gora egitea lortzeko ondorioak ateratzea ahalbidetuz.

#### -4.1) Helburu orokor eta zehatzak:

Laneko helburu orokorra Euskadin Justizia Errestauratiboaren ezagutza maila baxua dela ziurtatzea da. Era berean, ez ezagutzari lotuta doakion paradigmarekiko pertzepzio okerra edo iritzia zein den aztertu nahiko da, hau da, ea ezagutza izaterakoan populazioa praktikaren aldekoa aurkezten den edo ez.

Helburu zehatzetan aldagaien erlazioa frogatu nahiko da: Justizia Errestauratiboaz noiz behin jakin den, JEZ ezagunak zaizkien, eta datu zein azalpen baten baitan paradigmaren praktiken eta emaitzen aldekoak diren zehaztea sartzen da. Biktimaren Estatutuaren 5.1.j. artikuluan jasotzen den bezala (Protokoloa, 2019: 31. Or.) zigor prozesua abian jartzerakoan eta autoritateekin dagoen lehen kontaktuan biktimei JEZ existentziaz hitz egin behar zaie, eta egoera eman den kasuetan hori hala betetzen den aztertu nahiko da ere, erabilera gauzatzeko baliabideaz jakin beharko delako. Larritasunaren aldetik, erabilgarritasunak horren menpekoa izan behar duela uste den ziurtatu nahiko da, espero bezala. Populazioak jarraitzen dituen balio eta eskubideen aldeko den frogatuko da ere eta alderdien arteko elkarrekintza aktibo zein akordioa haien interesen arabera izan behar dela uste den aztertuko. Azkenik, aipatu

bezala, biztanleria praktikaren eta honen hedakuntzaren aldekoak den egiaztatu nahiko da edo zigor-ordain sistemak konfiantza gehiago eragiten dien ikusi.

Era berea, Gipuzkoako Audientzia Probintzialeko operadore juridiko diren magistratu multzo txiki batek, hau da, Justizia sisteman ezagutza eta jakituria dutenek, inkesta berdinari populazioak emandako erantzun eta posizio ezberdinik azaltzen duten ikusi nahiko da. Justizia Errestauratiboko eta Zigor Justiziaren saileko idazkariek magistratu ezberdinengatik beteak izatea lortu, abisua eman eta bertan batzuekin hitz egitea ahalbidetu bai zidaten.

#### -4.2) Hipotesia:

Kausa efektuko hipotesia erabiliko da ikerketa kualitatibo honetan: Justizia Errestauratiboarekiko ez ezagutzak pertzepzio okerra eta praktikak gutxiagotzea eragiten du. Kasuan, aldagai askea ezagutza izango da, zergatia; eta menpeko aldagaia pertzepzio oker eta erabilera baxua, ondorioa. Hipotesia osatzen duten aldagaiak ez berdinak izango dira pertsonaren arabera duen adina, kategoria, profesioa eta bestelako elementuek baldintzatzen dituztelako. Induktiboa da nire inguruko partikularretatik sumatu nuen ezagutza hutsetik abiatzen delako, emaitzen ondorioa populaziora orokortu nahian.

Justizia Errestauratiboarekiko ezagutzak beraz eragina izango du menpeko aldagaietan, aldagai kualitatibo hau izanik ikerketaren lehenengo objektua edo zentrala. Menpeko aldagaia inkestan biztanleriak emandako erantzunen bitartez neurtuko da, emaitza edo hipotesia halakoa den ziurtatzea ahalbidetzen bai du, inkesta eta azken galderen baitan, ezagutzak pertzepzio eta iritzia aldatzen duen frogatuko du eta.

#### -4.3) Alderdi enpirikoa: teknikaren azalpen zehatza, eta datuen lorbidea:

Ikerketa diseinua, lortu nahi den informazioa lortzeko estrategia, kasuan ikerketa pre-esperimentalak erabili da aldagai bat aztertu nahi delako inongo kontrolik gauzatu

gabe: menpeko aldagaia ez da manipulatu eta ez da kontrol talderik egongo. Paradigmaren hipotesia errealitatera hurbiltzeko nahikoa da, fenomenoaren ezagutza naturala kontrolatu nahi delako, inongo alteraziorik gabe eta emaitzen erabilgarritasun mailan konfiantza handituz.

Esperimentala izateko kontrol taldeak falta diren arren, lortutako erantzunak magistratu talde txiki baten erantzunekin alderatuko dira, nahiz eta laginak ez duen oso adierazgarria izatea ahalbidetuko, baliagarria izango da ezagutza eta pertzepzio edo iritzia diren aldagaiak alderatzeko, aldagai askea ez ezagutzatik ezagutza izatera pasa delako. Kausalitatea ez da zehaztasunez lortuko baina maila batean bai, ikerketa esploratorioa ahalbidetuko den aldi berean. Ikerketa mota hau gai baten inguruko ezagutzan oinarritzen da, kasuan paradigmarekiko ezagutza eta pertzepzio edo usteetan, eta kontuan hartu ez diren ondorioak ateratzea ahalbidetuko du.

Lehen mailako ikerketaren bitartez subjektuen informazioa jasoko da zuzenean, eta osatutako inkestaren bitartez arazo zehatza sakontasun batetik aztertzea ahalbidetu da. Emaitza kualitatiboak aztertuz Justizia Errestauratiboaren parametroak atera daitezke.

Kasuan, inkestaren bitartez lagin errepresentatiboaren datuak jasoko dira, inguruan aldaketarik egin gabe, eta zoriz esleituak. Ikerketa kualitatibo honetan beraz, paradigmaren errealitatea irudikatu nahi da parte hartzaileek honekiko duten ikuspuntuaren baitan. Lagina 168 pertsonen osatze dute, aparteko 10 magistratuekin batera. Prozedimendua orokorrean sareen bitartez gauzatu da nahiz eta Gipuzkoako Auzitegi Probintzian paperean gauzatu zen inkesta. Ohikoa da lagin txikiekin emaitzen irudikapena zalantzan jartzea, baina ikerketa hauetan berezko interesa errealitate anitzak aurkitu eta islatzea denez emaitzek balioa dute (SALAMANCA, 2007: 2. Or.).

Inkesta 39 galdera itxiekin osatzen da eta elur bolaren estiloa erabili da lagina progresiboki handitzen joateko, sare sozialen bitartez kontaktuek inkesta osatu eta partekatuz (SALAMANCA, 2007). Laginak beraz zoriz hautatu dira hasierako kontaktu batzuei familia eta lagun artean partekatu eta parte hartzearen baitan lortu delako, bereziki Euskadiko adin nagusikoen artean, lana Auzitegi Barruko Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuan oinarritzen delako. Gaztelaniaz dago zabalketan hizkuntza muga ez izateko.

Esan bezala, laginaren zati batera on-line heldu ordez, landa lana gauzatu ahal izan da Gipuzkoako Auzitegi Probintzian ekainaren lehen astean inkesta batzuk utzi eta bertako magistratu batzuegatik betetzea lortu delako, bereziki Justizia Errestauratibo eta Zigor Justizia sailekoak, horien artean Ignacio José Subijanak.

Beste inkesta batzuk Atotxako Lehen auzialdiko epaitegietara hurbildu eta berbera egiten saiatu nintzen arren, akreditazio baimena aurkeztea eskatu zidaten nahiz eta non eta nori ez adierazi, bertatik joatearekin batera.

Laginean Euskadiko errepresentazioa gauzatu nahi den arren, bereziki Gipuzkoako biztanlerian hedatu da inkesta, Araba eta Bizkaian kontaktuak izan arren sustatze progresiboa zailagoa izan delako.

Lehenengo galderan adinaren informazio demografikoa zehaztu da, emaitzetan pertzepzio eta iritzian eraginik izan dezaken aztertzeke. Jarraian, galdera zentrala erabili da Justizia Errestauratiboaren ezagutzaz jakiteko, eta ondorengoak galdera itxiak dira JEZkiko interesa zein jarrera neurtzeko helburua dutenak. Erantzun mugatuak eskaintzen diren arren, galdera guztietan eman da erantzun irekia emateko aukera edo gunea. Ikerketan Justizia Errestauratibo eta zerbitzuaren aldeko ezagutza eta iritzia balioztatu eta ulertu nahiko denez, galdera itxiak deskriptibo, dikotomiko eta esploratiboak erabili dira ezagutza zehazteko, zein kausalak pertzepzioa antzemateko.


#### -4.4) Inkesta adierazgarriak: datuen analisisia

Inkestaren 168 erantzunak biztanleria orokorra objektuaren adierazle ditugu, eta 10 operadore juridikoen multzoak errepresentazio indarrak ez duen arren, baliagarri izango da auzitegi probintzialeko magistratuek paradigmatikoko duten ikuspuntua zein izan daitekeen sumatzeko.

Sektore grafikoetan analisi estatistikoa adieraziko da ikergaiarekiko galdera-erantzun interesgarri eta baliogarrienak aipatuz, lehenik biztanleriaren emaitzak eta jarraian magistratuen erantzunak joango dira. Galdera guztietan eman da iruzkina edo erantzun pertsonalizatua txertatzeko aukera, eta grafikoetan bakoitzak %0.6 hartuko du, erantzun itxien kolore ezberdin bat hartuz.

## 1. Grafikoa: parte hartzaileen adina

Indica tu edad:  
168 respuestas




Iturria: berezko egitea

Inkesta osatu duen erdia baina gehiago gaztedia izan da, nahiz eta jende helduagoak ere osatzea lortu den, %21.4 25 eta 50 urtekoak izanik (36 pertsona) eta %17.3 50 urtetik gorakoak izan direlako (29 pertsona). Adinaren esperientzia faltak ezagutzan eragina izan dezakeen arren, errealitatean dagoen ezagutza islatzeko baliogarri da, helduak bai dira.

Magistratuen kasuan, parte hartzaileen %50 25-50 urte bitartekoa izan da eta beste erdia 50 urtetik gorakoak dira.

## 2. Grafikoa: Justizia Errestauratiboaren ezagutza

Conozco bien el termino Justicia Restaurativa  
168 respuestas



Iturria: berezko egitea

Gauzatutako bigarren galdera zuzen eta mamitsuena da, Justizia Errestauratiboaren inguruan ezagutza ez dagoela ziurtatu nahi zelako. 168tik %10.7 erantzun du ezagutza duela (18 pertsonak). 168tik erdia baina zerbait gehiagok (89 pertsonak) ez ezagutza onartu dute. Azken multzoak (61 pertsonak) ezagutza ez dutela baina noizbehin entzuna dutela onartzen dute. Esandakoa batuz, orokorrean ez ezagutzak %89.3 biltzen du, 150 pertsona alegia.

Magistratuen kasuan, %70 baiezkoko zuzena erantzun du %30 ezagutza ez baina entzuna duela erantzun da.


Hurrengo galderak planteamendu berdina du baina Zigor Justiziaz galdetzen da. Erantzunak oso ezberdinak izan ziren: %54.4 zurrin ezagutza dutela erantzun zutelako (93 pertsonak) eta %30.4 ezagutza ez baina entzuna edo irudia baduela onartzen du (51 pertsonak). %14.3, hau da 24 pertsonak dute ez jakintasun osoa. Aurreko galdera eta ehunekoarekin alderatuz baiezkoko eta ezezkoak kontrakoak dira, bereziki ez ezagutza Justizia Errestauratiboaren paradigmarekiko izanik.

Magistratuen kasuan %100 baiezkoko eman du.

Jarraian, zigor arloko gairen batean noizbehin sartuta egon den galdetzen da. %85.7 (144 pertsonak) ezezko eman zuten, %6 agian baietz erantzun eta baiezkoko zuzena %7 eman zuen (14 pertsonak). Agian edo baiezkoko eman zutenei, hurrengo galderan JEZ hitz egin zitzaizkien galdetzen da.

### 3. Grafikoa: organo judizialean Justizia Errestauratiboa ezagutarazten da

Si es que sí, te mencionaron la Justicia Restaurativa?  
168 respuestas



Iturria: berezko egitea

Kasu honetan, sartuta egon ez direla erantzun errepikatua zerbait jaisten da, %72ra. Hala ere, baiezkoa eman duten horien %24.4 (41 pertsonak) inork gaiaz ezer ere ez aipatu ziela adierazi dute eta %3 baxu batek (5 pertsonak) zerbitzuaren aukeraz aipatu ziotela onartzen du.


Magistratuen kasuan ez da inor zigor arloko kasuetan sartuta egon.

Justizia egikaritzeko Justizia Errestauratiboarekiko ezagutza zein den kusita, pertzepzioa aztertzen da jarraian, teoria eta erabilera ezberdinen aurrean dagoen iritzia zein den ondorioztatzeko.

#### 4. Grafikoa: Justizia egikaritzean politika eta moralaren oreka behar da

¿Te parece bien que exista una manera de impartir la Justicia que pretenda mantener el equilibrio entre lo político y moral?

168 respuestas



Iturria: berezko egitea

Kasuan, politika eta moralaren oreka berdindua egon behar dela %89.3 aldeko (150 pertsona) aurkeztu da, eta %10.1 ordea ezezkoa ematen du (17 pertsonak), inongo zehaztapenik egin ez dutenez, ezezkoa moralarekiko dela ulertzeraz eramaten du.


Magistratuen kasuan, %90 baiezkoa adierazi zuen, beste %10 kontra.



## 5. Grafikoa: delituak erlazio pertsonala kaltetzen du, ez legea

Un delito nos disgusta porque lesiona una relación interpersonal, no porque se haya lesionado la ley.

167 respuestas



Iturria: berezko egitea


Paradigma errestitutiboaren aldekoek delituak harremanak kaltetu edo hausten dituela pentsatzen du eta kaltea erlazio haustura konpontzen erreparatu litekeela. Era berean, legea haustea zuzenean inori mintzen ez digula esan da, kaltetu eta inguruan pairatu duen minak baizik. Erantzunetan paradigmatik bat dator %70.1 (117 pertsona), ezezkoan %16.8 kokatzen da (28 pertsona), eta beste %13.1 (23 pertsona) berezko erantzun zehatza eman nahi izan du: gehienek biak ematen direla esan dute, beste batzuk delitu motaren arabera dela, osotasunaren aldeko ekintzak bakarrik molestatzen gaituztela edo delitu arinetan bakarrik legea haustea haserrarazten gaituela adierazi dute, eta larrietan harremana.

Magistratuen kasuan, %30 bi arrazoiengatik atsekabetzen garela zehaztu nahi izan dute, %50 harreman interpersonala kaltetzen delako haserretzen digula seinalatu du, %10 ezezkoa markatu du araudia haustea mintzen digula adierazi du eta azken %10 ez du erantzun nahi izan. Inkesten zati bat Justizia Errestitutibokoa eta bestea zigor arlokoak diren arren, azkenean %80 onartu du harremanaren haustea mintzen edo atsekabetzen gaituela, paradigmatikoko aldeotasuna adieraziz, nahiz eta legea haustea ez den kanpo utzi nahi izan.

## 6. Grafikoa: Zuzenbide Penal Demokratikoan zigorraren funtzioa

En un Derecho Penal Democrático el castigo debe tener:

168 respuestas



Iturria: berezko egitea

Galdera honetan, egungo Zuzenbide Estatu Demokratikoan, epaien zigorrek zein funtzio izan beharko luketen galdetzen da, jendeak ordain-sari edo berreziketaren aldeko ikuspuntua duen frogatzeko. Zigor funtzioan delitu egileari mina gauzatu behar zaiola defendatzen duela zehaztu nuen inkestan, gaizki ulertuak ekiditeko. Ikusten denez, %79.8 (134 pertsonak) berreziketaren aldekoak aurkeztu da, helburua birgizarteratzea izanik. Zuzenean funtzio zigortzailea izan behar duela %10.1 (17 pertsonak) erantzun du eta beste %10.1 erantzuna zehaztu nahi izan du: gehiengoak bi funtzioak gauzatu behar dituela defendatzen dute, delitu egilea kalteaz libratu ezin daitekeelako. Batek delituaren inguruabarren arabera izan behar dela erantzun zuen, bestela delitu egilea komunitatetik baztertu eta biktimaren erreparazioa betetzen ez dela eta irabazle bakarra sistema bera dela esanez, duen aurrezaintza orokorraren helburuagatik.

Magistratuen kasuan %100 berreziketa funtzioa markatu du, inongo zehaztasun edo iruzkinik gehitu nahi gabe.

## 7. Grafikoa: Justiziak eskubideak barneratu behar ditu alderdi protagonistek kalteen erreparazioan parte hartzeko

La Justicia debe buscar la integración de los derechos tanto de la víctima como del autor. Para ello, es necesario exigir un cambio a la Administra... la comunidad, en restaurar los daños propiciados.

168 respuestas



Iturria: berezko egitea

Biktimaren eta delitu egilearen interesen arabera erabakiak haien akordio pertsonalaren baitan hartzearen aldeko aurkezten direnen kopurua jakin nahi zen, kasuaren arabera komunitatearen laguntzaz, kalteak berain artean konpontzearen pertzepzioa nabarmentzeko. Ikusten denez %88.1 (148 pertsonak) alde kokatzen da, %7.7 (13 pertsonak) gaizki iruditzen zaiola erantzun zuen eta beste %4.2 erantzuna zehaztu nahi izan zuen: batek delitu egileari zigor gisa eskubide oro kendu behar zaiola aipatzen du, eta beste batzuk tipo deliktiboaren arabera izan beharko lukeela, delitu larriekiko mesfidantza kutsua interpretatuz.

Magistratuen erantzuna %100 erabateko baiezkua izan da.

Honen harira, elkarrizketa aktibo gailuaren bitartez alderdi eta komunitatek adostasuna ematearen eraginkortasuna %83.9 defendatu zuen (141 pertsona) eta ezezkoa %10.1 markatu zuen, kontrako aldea adieraziz (17 pertsonak). Beste %6 delitu larriekin balio ez duela zehazten nahi izan du, kontrako aldea adieraziz. Magistratuen kasuan, %90 elkarrizketak erabilgarritasuna duela adierazi du, eta %10 ezezkoa.

## 8. Grafikoa: delituak erlazio pertsonalak kaltetzen ditu eta horregatik erantzuna protagonistek ematea beilatu behar da

¿Te parece que el delito daña las relaciones interpersonales y se debe velar porque la respuesta den los propios involucrados?

168 respuestas



Iturria: berezko egitea

Azken finean, erantzuna alderdi kaltetu eta kalte eragilearen baitan ematearen aldekotasuna frogatu nahi zen, kaltetu bakarrak komunitateko kideak izan daitezken gain, beraiek bai dira. Galdera honekiko %66.1 aldeko adierazten da (111 pertsona), %26.8 kontra (45 pertsona) eta beste %7.1 osatzen duten 12 pertsonak erantzun zehaztu nahi izan dute: orokorrean tipo deliktiboaren arabera izan behar duela jaso da, edo haien artean ados jarri eta iruzur egin dezaketela usteko da ere, programa errestitutiboarekiko mesfidantza adieraziz. Bi alderdiek adostasuna eman badute eta epaileak onartuz gero iruzurra gauzatzen dela pentsatzeak ez du zentzu handirik, erabakitako konponbideak beraiei eragiten diotelako erreparazioa oinarria izanik, eta akordioaren jarraipena galdatzen denez, tranpa zantzu oro jakina izango da.

Magistratuen erantzunen %80 baiezkoa eman du, batek instituzioaren laguntzaz izan behar duela zehaztu nahi izan du, komunitatearen irudikapen gisa. Beste %10 ezezko zuzena adierazi zuen eta azken %10 delituaren naturaltasunaren arabera izan behar duela, kasu guztietarako baliogarria ez dela defendatuz.

Delitu baten aurrean ondare material eta moralak errestitutu behar direla galdetzean %90.5 baiezkoa erantzun du (152 pertsonak), ezezkoa %3.6 (6 pertsonak) eta beste ehuneko gutxi batek lehenengo moralak lehenetsi behar direla zehaztu nahi izan du. Laginaren ehuneko altuenak beraz, adostasuna adierazten du biktimaren erreparazio ezberdinekiko, moralari edo alderdi pertsonalari merezi duen garrantzia emanez.

Magistratuek %100 baiezkoa adierazi du, eta batek biktimak behar izanez gero eman behar dela zehaztu nahi izan du.

## 9. Grafikoa: zigor sisteman erresilientzia indartu behar da

Hay que reforzar el funcionamiento del sistema penal enfocándose en la resiliencia (capacidad de superar circunstancias traumáticas) de la víctima e infractor.

168 respuestas



Iturria: berezko egitea

Justizia Sistemaren fokua biktima eta delitu egilearen erresilientzia izan behar dela adierazterakoan %86.3 (145 pertsona) alde aurkeztu dira, biktimaren kaltea alderdi positiboenetik gainditzen saiatu eta delitu egilearen erreparazio esfortzu eta berreziketan zehaztearen alde. %11.3 ezezkoa eman du (19 pertsonak) fokua erresilientzia izan behar ez duela markatu delako. Beste %2.4 garrantzitsua dela baina zigor sistemaren helburua izan behar ez dela adierazi nahi izan du, eta batek bereziki biktimaren erresilientzian fokatu behar dela aipatzen du.

Magistratuen erantzunen %80 aldeko aurkeztu da, %10 kontra eta %10 batek zera zehaztu zuen: erresilientzian fokatu eta indartzeaz gain, erantzukizuna eta kaltetuen beharrak ere indartu behar direla.

Aurretik laneko markoan azalduak diren Justizia Errestauratiboak biktimari eta delitu egileari eskaintzen dizkien nahitaezko gaitasunak (errua onartu, erreparazio eta barkamena lortu, etapa itxi, etab.) zeintzuk diren adierazi da jarraian eta irakurritakoarekiko pertzepzioa aztertzeko, iritzia eskatzen da. Delitu egileari programak eskaintzen dizkion elementuetan %88.7 adostasuna adierazi du (149 pertsona), %5.4 kontrari azalduz (9 pertsona). %5.9k delitu batzuk errepara ezinak direla edo etapa ixtea ezinezkoa dela zehaztu nahi izan dute. Azken batzuk delitu egile eta tipoaren arabera erabili edo lortu ezin dela iruzkindu nahi izan dute.

Biktimei eskaintzen zaizkien aukeren inguruan, %86.9 (146 pertsonak) gaitasunekiko adostasuna adierazi du, %7.7 kontra egin dio eta beste %5.4 aipuz erantzun dute: delituaren arabera etapa itxi ezina dela edo kasuaren arabera praktikak ezinezkoak direla adieraziz. Biktimek borondatea izango ez dutela diote, baina kasu horietan ezin izango denez JEZ desbideraziorik gauzatu legean jasotzen den eta logikoa den bezala.

Magistratuak, delitu egilearen gaitasunekin %90 adostasuna adierazi du eta beste %10 horrek ez du erantzun nahi izan. Biktimaren gaitasunen inguruan %100 erakutsi du alde dagoela.

JEZ ezagutza dagoen galdetzerakoan %83.3 (140 pertsonak) ezezkoa erantzun du eta %16.7k baiezkoa (28 pertsonak), berriro ere paradigma eta dituen zerbitzuekiko ez jakintasun edo ezagutza nabarmen izanik. Magistratuen %100 erantzun du JEZ existentziaz dakiela. Jarraian, JEZ kasuak desbideratzeko bete behar diren ezaugarriak azaltzen dira (borondatea, errua onartzea, arriskurik eza, etab.). Galdatzen diren elementu horiekiko aldeko iritzia %86.9 eman du (146 pertsona) eta aurkakoa %4.8 (8 pertsonak). Beste ehuneko txikiak erantzun egokia zein den ez dakiela adierazi dute edo organo judizial guztietan aukera hau eman behar ez dela komentatu dute, erabilgarritasuna organo eskudun guztietan ez duela adieraziz. Magistratuen %80 adostasuna adierazi du eta %20 batek iruzkin berberaz erantzun nahi izan dute: delitu egileak nahiz eta errua ez onartu programa errestauratiboan zehar horretarako aukera duela eta JEZ horretan jardun behar duela azaldu dute.

#### 10. Grafikoa: Zigor Kodean ez da JR azalpen eta praktika zuzenik jasotzen

En el Código Penal no se concreta ni desarrolla el concepto ni las prácticas de la Justicia Restaurativa. Solo se perciben ciertos rastros débi...pena, trabajos para la comunidad, etc.). Te parece:  
168 respuestas



Iturria: berezko egitea

Bestalde, zigor delituak eta horien ondorioak jasotzen dituen Zigor Kodea aipatzen da, Justizia Errestauratiboaren terminologia eta praktikak ia jasotzen ez direla aipatuz. %72 hutsunearen aurka adierazi da (121 pertsona) eta %20.8 ordea ados (35 pertsona). Gelditzen den %7.2 Zigor Kodeak Justizia Errestauratiboaren kutsu handiagoa eta programen erabilgarritasunak zehaztu behar dituela iruzkindu du, edo delituaren arabera izan beharko litzakeela defendatzen du, erabilgarritasuna mugatua dela adieraziz.

Magistratuen kasuan %60 defizitaren kontra adierazi da, beste %10 batek ez du erantzun nahi izan eta gelditzen den %30 iruzkinaren bitartez erantzun nahi izan du: batek biktima eta komunitatearen nabarmenkeria eta irabaziak gehitu behar liratekeela, beste batek Justizia Errestauratiboaren kontzeptuak jasotzea premiazkoa dela eta azkenak praktika errestitutibo ezberdinak jaso eta azaltzea positiboa izan daitekeela defendatzen du, azken finean hiruak defizitaren kontrako adieraziz.

Honen harira, araudi internazionalak martxan edo praktikan jartzeko Espainiako araudiaren defizitaren aurrean Euskadik inizatiba hartu behar izatea eta JEZ Protokoloa zehaztea zer iruditzen zaien galdetzerakoan, %89.9 (151 pertsonak) aldeko posizioa adierazi zuten, beharrezko ikusiz. %4.2 txiki batek kontra egiten dio ekimenari (7 pertsonak) eta beste %5.9 ez du ez aldeko ez kontrako posturarik adierazi nahi izan. Magistratuen %90 inizatibaren aldeotasuna adierazi du eta %10 zera zehaztu nahi izan du: ez dela bakarrik legegintza defizit estatalarengatik izan, JEZ blindatu edo indartzeko baizik.

Protokoloaren helburuekiko ere %89.9 altu batek aldeko (151 pertsonak) jarrera adierazten du, %4.8 kontrakoa eta beste %5.3 (9 pertsonak) operadore juridikoek justiziaren ikuspegi gizatiaragoa izateak beldurra ematen diela adierazi du. Magistratuen %100 aldeotasunez erantzun du.

## 11. Grafikoa: Euskadiko akordioen datuak baliagarri eta eraginkorrak dira

De los compromisos acordados en la última década en Euskadi se han cumplido por completo en 65% de los casos y 15% parcialmente. Considero la práctica válida y eficiente.

168 respuestas



Iturria: berezko egitea

Euskadin JEZ desbideraturiko kasuen eraginkortasunaz hitz egiterakoan, beste galderekin konparatuz, iritzi zehaztu asko jaso dira. %60.1 (101 pertsona) emaitzen aldeko kokatu dira, %29.2 emaitzak baliagarriak eta eraginkorrak ez direla usteko du (49 pertsonak) eta beste %10.7 iruzkin ezberdinak egin ditu: alde batetik emaitzak txarrak ez direla eta gehiago landu behar dela aipatzen dute; eta bestetik, datuekiko mesfidantza eta erabilgarritasun maila baxua dela komentatu dute, ehunekoak baxu ikusiz.

Magistratuen kasuan, %90 datu eta eraginkortasunarekiko aldeko erantzuna eman zuen eta %10 ondorengo zehaztu du: datu estatistikoak eskaintzeaz gain, alderdi kuantitatiboaz jakitea garrantzitsua dela emaitzak egoki interpretatzeko. Iruzkina Protokoloan ere jasotzen da, uste ona bultzatzea eragin dezake eta.

JEZ duen funtzionaltasuna estatuan alderatuz, BJKO eskaintzen diren datu desbideratuen %40 Euskadin ematen dela azaltzen da eta praktikak zein erabilgarritasuna espainiar herrialdean gehiago hedatu behar liratekelaren aldeko edo kontrako posizioa galdetzerakoan, %85.1 (143 pertsonak) hala dela ziurtatu eta paradigma zein honen zerbitzuak sustatu behar direla garbi erantzun du. Beste %9.5 (16 pertsonak) ezezkoa eman dute. Azkeneko %5.4, batek hedatzeak arriskua suposatu dezakeela iruzkindu du, zehaztasun gehiagorik gabe eta bestek ez dute iritzia adierazi nahi izan. Magistratuen %90 hedatzearen aldeko kokatu da eta azken %10 “jakina” erantzunez kokatu da aldeko.



## 12. Grafikoa: delitu larrietan erabilpen urriak JR praktikekiko mesfidantza adierazten du

Entre 2015-2017 solo el 1% de los casos derivados en Euskadi pertenece a delitos graves, indicando cierta desconfianza para la práctica restaurativa de estos casos. Estoy de acuerdo:

168 respuestas



Iturria: berezko egitea

Hain komentatua izan den delituen larritasuna aipatzerakoan Euskadiko JEZ kasuen %1 delitu larrietan gauzatzen dela adierazi da. Hau programa errestitiboen gaitasuna edo alderdien borondatea zalantzan jartzearen isla dela eta honen aurrean adostasuna aurkezten duten galdetu da, beste erdiguneko galdera bat izanik. %58.3 (98 pertsonak) adostasuna adierazi du programa errestitiboekiko mesfidantzaren adierazle delarekin. Beste %31.5 (53 pertsonak) kontra egin du agian larritasuna duten kasuetan baliogarria ez dela sentitzen dutelako. Azkeneko %10.2 denetarik dio: zailagoa izango dela eta gehiago irabazten ez dutenez mesfidantza ordeztu alferkeriak eragiten duela erabilera murrizta, kasu horietan borondate eta berreziketa zailagoak antzematen dituzte, eta beste batzuk mesfidantza eragiten duela onartzen dute delitu larrien kalteak korapilatsuagoak izan daitezkeelako.

Magistratuen kasuan, %60 tasa baxua mesfidantzaren adierazle delaren aldekatasuna erakutsi du, %20 ezezkoa eman du, agian kasu larrietan baliagarritasuna ez duela sinesten dutelako eta azken %20 iruzkin bidez erantzun du: delitu larrietan egon diren emaitza pozgarrien ez ezagutza adierazten duela, eta zerbitzua “jostun kaxa” bezala hartzeak arriskua eduki dezakeela erantzunez.

Baldintza gakoa alderdien borondatea dela azaltzen da ondorengo galderan, eskubide eta eraginkortasun handitzaile gisa balio duelako. Galdatu behar den edo ez galdetu da eta erantzunetan %85.1 aldekatasuna adierazi du (143 pertsonak), %10.7 (18

pertsonak) ezeko posizioa adierazi dute behar zein eraginkortasuna kolokan jarritz eta azken %4.2 hain erraza ez dela uste du erantzun ezintasuna sentituz.

Magistratuen kasuan, %90 ados adierazi da galdatu beharreko elementua dela markatuz eta beste %10 ondorengo iruzkina utzi du: borondatea ez da eraginkortasunagatik galdatu behar, den oinarrizko premisagatik baizik, alde adieraziz baina zergatia zehaztu nahian.


Zigor arloko kasuak programa errestitutiboetara desbideratzerako prozesuaren eta prozesua zibilizatzeko arriskuaz galdera deskribatzaile dikotomiko batzuen bitartez galdetu ostean, Eusko Jaurlaritzak praktiken alderdi positiboak: organo judizialen lana arindu, justizia ezartzea bizkortu eta zigor prozesalaren markoan erabaki judizialean laguntzen duela direla zehazten da. Onura hauek atsegin eta oniritziak diren galdetu da eta %73.8 (124 pertsona) aldeko adierazi da, beste %21.4 kontrari ez du esandakoaren uste osoa adierazi (36 pertsona) eta azken %4.8 iruzkin ezberdinez erantzun zuen: adierazitakoak eta alderdi gizatiarragoa ere ahalbidetzen duela, eraginkortasun ekonomikoa alde utzi behar dela, arriskutsua izan daitekeela eta lana arintzea onuragarria inoiz ez dela esanez.

Magistratuen kasuan, Eusko Jaurlaritzarengatik mesedegarriak diren elementuak aipatu eta haiengandik galdetzerakoan, oraingoan %40 adierazi da gogobetea, beste %20 ez du erantzunik eman nahi izan eta gelditzen den %40 iruzkin bidez erantzun nahi izan du: batek kasuen gehienetan lana arintzen ez duela adierazi du, prozedimendua luzatu baizik, bereziki epaitze fasean egoterakoan, inplikatzeko duen tramitazio eta eskumen aldaketagatik, kontra adieraziz. Beste batek aipaturiko irabaziak bigarren mailakoak direla eta onura nabarmenena konponbidean alderdiek haien interesen arabera erabakitzen dutela dio. Beste batek aldekotasuna adierazten du baina enfasia alderdi kaltetuen protagonismoan egon behar duela erantzun du, eta azken batek Eusko Jaurlaritzaren irabaziei aldekotasuna adieraztea pragmatikoegia dela adierazi nahi izan du.

Amaieran Justizia Errestitutiboarekiko iritziaz galdetzen da zuzenean:

### 13. Grafikoa: informazioaren ostean JR interesa handitu da

Tras esta información, me interesa saber más acerca de la Justicia Restaurativa:  
168 respuestas




Iturria: berezko egitea

%79.8 paradigmaren inguruan informazio gehiago jakin nahiko du, harekiko interesa adieraziz (134 pertsona). %17.9 batek (30 pertsonak) ezezkoa ematen dute eta azken %2.4 paradigmarekiko interesa sustatzea interesatzen zaiola edo bakarrik praktikan behar izatean jakin nahiko duela iruzkindu dute.

Magistratuen %80 baiezkoa adierazi du, %10 ez du erantzun nahi izan eta azken %10 baiezkoa beti interesatu zaiola iruzkinarekin indartu nahi izan du.

### 14. Grafikoa: zigor auzi batean, JEZ joko da

Ante un conflicto penal: en vez de dejarlo a manos del proceso penal, recurriría a los Servicios de Justicia Restaurativa en el caso que fuera compati...refiere los fundamentos y objetivos que defiende.  
168 respuestas



Iturria: berezko egitea

Interesaz gain, praktikaren pertzepzioaz galdetzen zaie, zigor arloko arazo baten aurrean JEZ erabiliko luketen galdetzen da. %50 zuzenean baiezkoa ematen du (84 pertsonak), %3 ezezkoa (5 pertsonak) kasua betiko prozesuarenpean utziz eta beste %47 (79 pertsonak), espero bezala, delituaren larritasunaren arabera oinarrituko direla erantzun du, erabilgarritasuna kasuaren arabera zalantzan jartzen.

Magistratuen %60 baiezkoa adierazi du, %10 ezezkoa eta azken %30 delitu tipoaren arabera erabiliko lukeela adierazi du.

### 15. Grafikoa: JR izate eta praktika sustatu behar da

Opino que hay que difundir la existencia y práctica que persigue la Justicia Restaurativa.  
168 respuestas



Iturria: berezko egitea

Justizia Errestauratiboa eta honen praktika ezberdinak, zein zigor arlokoa, lurraldean zabaltzea merezi duen galdetzerakoan %92.3 (155 pertsonak) aldeko posizioa adierazi du zurrun, %6 kontrakoa (10 pertsonak) eta beste %1.7 adostasuna adierazten dute baina komunitatea at utziz edo kasu konkretu batzuen erabilpenean bakarrik.

Magistratuen %90 baiezko zuzena adierazi du eta azken %10 kontrako aldean kokatu da.

## -5) Ondorioak:

Ateratako datuen analisitik, ondorio ezberdinak atera daitezke. Hasteko, *helburu orokorra* den hipotesia ziurtatzea ahalbidetzen digu.

1) Parte hartzaileen ezagutzak gora egin ahala, programa errestitatiboen praktikak eta pertzepzio onak gora egiten du; ez ezagutzak harekiko dagoen pertzepzio okerra eta erabiltze maila baxuan eragiten du alegia. Izan ere, hasiera batean Justizia Errestitatiboa den paradigmarekiko ezagutza parte hartzaileen %10.7 zuen bakarrik, beste %53 guztizko ez ezagutza onartu eta %36.3 ez duela ezagutzen baina entzuna duela markatu zuelako. Hortaz, parte hartzaileen %89.3 Justizia Errestitatiboaz ez ezagutza dutela ziurtatu da, 168tik 150 pertsonak. Baina amaieran iritzia, erabilera eta sustapenez galdetzen da: %79.8, hau da, 134 pertsonak paradigmaz informazio nahia eta jakin mina duela adierazi du, erabilera %50 zuzenean baiezkoa markatu du eta beste %47 delitu tipoaren arabera erabiliko lukeela erantzun du, eta sustapenaren aldetik %92.3, hau da, 155 pertsonak praktikak eta paradigmak defendatzen duen alde teorikoa zabaltzea nahiko du.

Orokortuz, hasieran ez ezagutza duen %89.3ak Justizia Errestitatiboaz jakiterakoan, aldeko posizioa aurkeztu du, larritasuna salbuespenezko elementua izan arren.

Magistratuen kasuan, aldagai askea ez ezagutzatik ezagutzara aldatzen da. Lagin ñimiñoak Justizia Errestitatiboko eta Zigor Arloko magistratuek osatzen dutenez, kutsuak nabariak dira erantzunetan, nahiz eta ezagutza zein interes, erabilpen eta zabalkuntzan Justizia Errestitatiboaren aldeko jarrera adierazi den orokorrean.

*Helburu zehatzen* kasuan, ondorio ezberdin interesgarriak antzeman daitezke:

1) Aldagaien arteko erlazioa ziurtatzen da, lagin errestitatiboan ez ezagutza den aldagai askeak menpekoa duen pertzepzio eta iritzian zuzenean eragiten duelako.

2) Justizia Errestitatiboak defendatzen dituen interes eta eskubideen iritzi orokorra aldekoa da, garbi.

3) Erabilera larritasunaren arabera kolokan jarriko zela espero nuen, eta hala izan da: amaierako erantzunean %50 JEZ kasu guztietan erabiliko lukeela erantzun duelako eta beste %47, ia erdiak, delituaren arabera erabakiko lukeela erantzun duelako, azken

%3 ezezkoren kontra. Agian, mesfidantza programa errestituatiboarekiko eduki orde, norberaren gaitasun eta borondatearekiko dela ondorioztatu daiteke, zalantzan jartzen bai da behar eta interesak babesten dituen prozesu mota.

Magistratu baten zehaztasunean, delitu larriekin programek duten eraginkortasunean ez ezagutza dagoela jasotzen da, oso pozgarriak direla zehazten delako. Borondate eta elementu galdagarriak betetzen badira, nahiz eta prozesu eta saioak agian gogorragoak izan, emaitzen baliagarritasuna eta erreparazioa osotasunean gertatzeko aukera sustatu behar da, Justizia Sistemak kasu ezberdinetan programa errestituatibo egokienak zein diren zehaztu eta praktika bultzatuz. Ez gaude elkarriketaren bitartez auzi edo arazoak konpontzera ohituak eta are gutxiago larriak diren kasuetan. Arazoen konponbidea era baketsuan ematea sustatu beharko da heziketaren bitartez egunerokotasunean txertatzea lortuz, ondoren zigor arloko auzietan, nahiz eta kasuak larriak izan, borondatea ematen den kasuetan programa errestituatiboek aukera emateko, ez bakarrik protagonistak diren alderdien partetik, operadore juridikoengatik ere. Agian larria hitzak jarraian lotuta zigorra merezi duela alde uztean lortu daiteke adierazitakoa, gutxiago kaltetu eta gehiago erreparatu eta lagunduz, bizikidetzaren alde jarduten.

4) Elkarrizketa aktiboaren bitartez arazo bat konpontzea eta akordio batera iristea eraginkorra izan daitekelaren alde %83.9 altua aurkeztu da. Beste %10.1 ezezkoa eman eta azken %6 delitu larriekin balio ez duela usteko du. Espero baino emaitza altuagoa jaso du elkarrizketaren bitartez era baketsuan adostasuna lortzearen aukerak eta biztanleriak alderdi gizatiarrari garrantzia emateko gogoia duela eta prest dagoela islatzen du, bake juridikoa zigorrik gabe lortzearen alde positiboa ikusteko gai izanik.

5) Dena den, hautsia den erlazio interpersonalaren alderdi kaltetu eta kalte egilearen elkarrekintzaren bitarteko akordioak erabakia izan behar duela %66.1 izan da aldeko, erabakia haien esku utzi behar dela beraz, aurreko datu eta erantzunekin alderatuta zerbait baxuagoa da. Kontra %26.8 aurkezten da, hirugarren esku sartzaile batek erabakian eragitea defendatzen dutela interpretatuz. Azken %7.1 aukera hori larritasunaren arabera izan behar duela zehaztu du, partzialki kontra eginez. Azken finean, ohitura faltak erantzun eta ustea baldintzatzen duela pentsatzea eramaten gaitu, borondate eta adostasun ororen aurka adierazteak ez duelako zentzu handirik. Beraz,

bakea eta bitartekaritzak berritzea ahalbidetzen duela egunerokotasunean barneratzean, elkarrizketa eta alderdien parte hartze aktiboak indar eta konfiantza gehiago lortuko du.

6) Zigor Sistemak bereziki biktima, bai eta delitu egilearen erresilientzia indartzearen aldeko %86.3 adierazi da. Zigorzearen helburua eta delitu egilea kaltetu beharra beraz, lehen baino baztertuagoa dagoela ondorioztatu daiteke. Zigorren funtzioa berreziketa izan behar duela eta ez zigorra %79.8 defendatu duelako ere. Batzuek zigortzeko beharra eta delitu egileak eskubiderik ez duela iruzkindu nahi izan duen arren, orokortuz ordainketaren kontzeptu eta beharra pixkanaka alde gelditzen ari da, paradigmatik jarraitzen duenaren aldekoa izanik.

Alditu diren magistratuen kasuan, bi erantzunetan eman da ia % osoa alde, eta nahiz eta kopurua txikia den arren, gizartearen adierazle diren heinean, pozgarria.

7) BJKO eskainitako estatuko datuen erantzunean, JEZ estatu mailan hedakuntza merezi edo behar dela %85.1 altuak defendatu du, beraz hiritarren nahia zerbitzua sustatu eta indartzea dela antzeman daiteke, defendatzen diren programa, balio, interes eta eskubideekin bat etorriz. Magistratuek %100 baiezkoa ematea positiboa da ere, JEZ eraginkortasunaren isla izanik.

8) Eusko Jaurlaritzak ematen dituen irabazi edo onuren alde laginaren %73.8 aurkeztu da, beste %21.4 kontra, zalantzan ipiniz eta azken %4.8 alderdi gizatiarra sustatzen duela kanpo uzten duela aipatu du, onura azpimarratu nahian, ekonomia alde utzi behar dela edo lana arintzea positiboa ez dela iruzkindu dute.

Hala ere, Zigor Sistemako magistratuetako batekin elkarrizketa bat izan ostean, garbi adierazi nahi izan zidan JEZ lana arindu ordez luzatzen duela, inplikatzeko duen tramitazio eta epaileen onarpenak prozesua pisutsuagoa egiten dutela, eta horren harira kasu batzuetan desbideratzea ukatzen dela.

Irabaziek berez, diogen luzaera konpentsatzen dutela uste arren, nahia eta aukera dagoenetan, iruzkin hau kontuan hartzekoa da operadore juridikoen aldetik negatiboki eragiten duelako kasuak Justizia Errestauratibo programetara desbideratzerakoan, praktikak murriztea eraginez. Iruzkinetako batean jaso den bezala, lana arintzeak ez du onura adierazi nahi. Kasuan organo judizialak lanpetuak daudela jakina da, atzeratuak doazela. Baina programa errestauratiboak eskaintzen dituen onurak kontuan hartuta,

konponbideren bat proposatu edo epaileen aldetik lanarekiko adostasuna izatea zehaztu beharko da, batzuetan prozesua ez arintzea traba ez bilakatzeko.

9) Zigor Justizia Sistema, Justizia Errestauratiboa baina dezente ezagunagoa dela ziurtatu daiteke, Zigor Kodeko edozein hausturaren aurrean, egunerokotasunean txertatua dagoen bidea delako. Laginaren %55.4 baieztatu zuzena erantzun du, eta %30.4 ezetz baina entzuna duela markatu du. Ziur azken horiek izan daitekeenarekiko pertzepzio garbiagoa dutela, Justizia Errestauratiboko bake prozesuekin alderatuz.

10) Biktimaren Estatutuan jasotzen denez, zigor auzitegi-tako kasuen lehen kontaktuetan JEZ existentzia eta aukeraz hitz egin behar da, organo judizial guztietan. Laginari zigor arloko kasuetan sartuta egon den galdetzerakoan %28 eman zuen baieztakoa, eta kopuru honen %3, alegia, 5 pertsonak bakarrik erantzun zuten JEZ aipatu zuela; beste %25, hau da, 41 pertsonak, aipu edo aukera ezberdinaz aipamenik egin ez zitzaizola erantzun du. Interpretatu daitekeenez, ez da araudian jasotako baldintza errespetatzen edo gauzatzen, organo judizial guztien aldetik, eta Eusko Jaurlaritzak aipua bermatzeko erabaki drastikoren bat hartu behar luke, ez ezagutzarrik gabe protagonistek ezingo dutelako zerbitzuaren erabilpena erreklamatu. Eta nire ustez, zerbitzuen informazioa agintariekiko lehen harremanean eskuratu beharko litzateke, polizia edo judizialak izan.

11) Orokorrean laginak, nahiz eta gaiarekiko ez ezagutza izan, paradigmak defendatzen dituen elementu ezberdinen alde adierazi da. Herritarroei legea haustea baino gehiago, delitu egile eta biktimak elkarrekiko erlazioan duten hausturak sumintzen gaituela defendatzen du paradigmak, eta %70.1 zeharo konforme dagoela markatu du, eta %23 bi gauzek sumintzen dituzela edo delitu motaren arabera apurtzen dela elkar harremana usteko du. Bestalde, ondare material zein moralak erreparatu behar direlaren alde %90.5 altua aldeko agertu da, justizia sistemaren helburuekiko duten pertzepzioa zein den adieraziz. Justizia egikaritzean politika eta moralaren arteko oreka bat lortu behar dela %89.3 defendatu du ere; eta Euskadiko Protokoloaren helburuekin ados %89.9 aurkeztu da. Orokorrean beraz, marko teorikoan azaltzen diren paradigmaren alderdi eta ideologia gehienekin adostasuna adierazten du jendeak, egun sistema gizatiarrarekiko aldeotasuna borborrean dagoela ondorioztatuz, bai eta Justizia Errestauratiboaren ezagutzak pertzepzioa eta iritzia berarekin eskutik eramaten dituela, justizia egikaritzea ez titzeko helburuak.



12) Delitu egile eta biktimari ahalbidetzen zaizkion aukeretan ere adostasuna adierazi du jendearen gehiengoak, delitu egilearen kasuan %88.7 eta biktimaren kasuan %86.9. Hala ere, espero bezala gutxi batzuk kasuaren arabera etapa ixtea ezinezko antzematen dute. Baina orokorrean, emozioak adieraztea, errua onartzea, erreparazioa gauzatzeko laguntza jasotzea, damu edo errukia adieraztea, kalteen zauriak jakinaraztea, erreparazio eta barkamena lortzea, etapak ixtea bezalako elementuak, gutxi arte irudimenezkoak ziruditenak, posible direla eta arazoa konpontzeko baliagarriak izan daitezkeela ulertu eta adostu du jendeak, beti ere biktima arriskupean ez bada eta programa errestitutiboan baitan gauzaten diren elkarrekintza aktibo eta aurrerapenak, era jarraitu eta kontrolatuan.

13) Euskadiko Protokoloan ahalbidetzen diren akordioen emaitzekiko balio eta eraginkortasunaz galdetzerakoan, %60.1 eraginkorra delaren aldeko aurkeztu da, beste %29.2 emaitzak eraginkorrak ez direla uste du eta azken %10.7 bi alderdietan banatzen da: emaitza eraginkorrak direla eta gehiago handitu behar direla defendatzen dute batzuek eta bestek datuen iturritik mesfidantza adierazi dute eta eraginkortasun aldetik murrizta iruditzen zaiela jakinarazi.

